


INAUTERIETAN

Edu Zabala





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eu



AURKIBIDEA

JO, MADDI, JO!

MOMOTXORROAK

LANTZEKO PATXAMAMA

MARKITOS ERRE DEZAGUN!!
ATORRAK

HOU, PITXU, HOU!



JO, MADDI, JO!

Maddi Zubietarra zen eta ttikitatik, urtero-urtero iyoteak iristean, halako zirrara batek zeharkatzen zuen bere soina joaldunen oroitze soilarekin. Kobrezko pulunpak astintzeak sortzen zuen durunda erritmiko hark, hegoak jartzen zizkion bere gogoari eta joareen jotzeari jarraitu nahian, bere irudimena Zubieta eta Ituren arteko zuhaixka, erreka, larre, bordetan goiti zamalkatzen zen.

- Maddi –zioen bere amatxik–, beti izan zara berezia, bereziena etxe honetan. Zure anaiak “normalagoak” dira, espero genezakeena egiten dute, eta beraientzat zu arreba ttipia zara, beti ametsetan dabilena, beti ipuinak behar dituen, zenbait gauza arraro egiten dakiena, igarle aparta, batzuetan gehiegizkoa, zalantzak sortzen dituen horietarikoa. Umea zara beraientzat baina ulertezina era berean, heldu bati dagozkion hainbat elementuz jantzia zure txikitasunean, maitagarria beti ere.
- Bai amatxi, baina ez al gara horrela ume guztiak?
- Zuk zeuk ikusi Maddi. Non daude orain zure lagunak?
- Plazan, jostatzen.
- Eta zuk ordea, nahiago duzu hemen egotea nire ipuinak entzuten, zure ama etorri eta haserre bizian kalera bidaltzen zaituen arte. Zergatik?

Horrek ez zion gehiegi axola gure Maddiri; berak jakin, ezagutu, nahi zuen eta iturririk ederrena, oparoena, agortezina, bere amatxi Maittere zen. Beti istorio harrigarrien bat zeukan ezpainetan, inoiz ez zion kale egiten oroimenak. Gezurra zirudien baina berarekin Zubietak eta Iturenek, munduko zilborra ziruditen. Mendetan zehar historiak hango bazterrei eta biztanleei emandako gertakizunen zama eskerga bezain aberatsa zela medio, garai bateko armen altxatzea inbasorearen kontra Amalur gazteluan, kontrabandoa, harpeak, Bertizgo jauregia, Iturengo arotzarena, eta beste hainbeste elezahar eta ipuin berpizten ziren haren ahoan, gogoan.

- Maddi, dena den ihes egiteko joera handia duzu.
- Ihes, nora ihes?
- Bai ume, zure buru horrek hegal handiegiak ditu eta behar zenuke hori mugatu, hegalak pausatu.
- Nola mugatuko dut neure gogoia amatxi? Ezinezkoa da ... eta gainera gustura nabil horrela.
- Bai, baina...

Esaldia bukatzeko betarik ez zuen izan eta muxu bat utzi zion kopetan, karrikara jauzi eginez. Maddirentzat lyoteak magikoak ziren, ez ziren besta arrunt bat: janzkerak, orgak, mozorroak... soilik mozkorrak balantzaka ikusteak Zubietako zubia zeharkatu ezinean, eroriez erori horretan, hausten zuen xarma berezi hura eta halako bat ikusi bezain laster ihesi zihoan, mozorrotutako aker basatia berarengana builaka eta erasoan hurbiltzen zitzaionean bezala.

Hura izua!

Egunik miresgarriena, astelehena zen dudarik gabe eta hasieratik amaieraraino biziki dastatzen saiatzen zen. Goizean goiz, koadrilarekin batera bi joaldunen atzetik ateratzen zen hauek puskak biltzeko egiten zuten herri birari bere buila gaineratuz, trikitixa soinuen artean.

– Baina Maddi, ume moko halakoa! –erraten zioten anaiek–. Nola aterako haiz koadrilarekin bost urte besterik ez dittun eta! Sorgin halakoa, egon hadi isilik eta ez hadi jarri matrakosoa! Ama, esaiozu zerbait ipurterre honi, bestela leihotik behera eroriko da eta.

– Aterako zara joaldunek puskak bildu eta hamaiketakoa burutzen dutenean. Zaude lasai! Gainera elurra ari du, ume!

– Ba, hobeto! Zer egingo dut etxean ba? Bai aspergarriak zuek! Anaiak joaten ahal dira, ezta? Eta ni, zera, kaka!

– Maddi zaude isilik eta ez jarri temosoa!

Urteak jin urteak joan, Maddik bere teman setati, jo-ta-ke, etxeko guztiak bete-bete egin arte jarraitu zuen. Halako batean, gogaiturik, anaia gaztearen koadrilarekin joaten ahal zela erabaki zuten, baina bai zera!: hasi bai, baina amaitu beti berdin: joaldunaren ondoan, ia-ia itsatsita joareak berak baleramatza bezala, eta mugimendu bera eginez. Joaldunek aurrerantzean puska bilketa Maddi alboan zutela egitera ohitu behar izan zuten.

– Joaldun ona izango hintzen... pena neska izatea!

– Zer pena eta zer herrena! –Zioen bere kolkorako Maddik (Ni egun batean zuekin joango naiz, bai horixe! joareak jo, jo eta joaz. Ez nauzue hain erraz menderatuko!).

– Amatxi, zergatik ez ahal gara neskak joaldunak izan? Zergatik?

Amatxi ahoa bete hortz geratu zitzaion begira eta arnasari buelta eman ondoren adi-adi so eginez erantzun zion:

– Ez dakit ume, horren inguruan esamesa franko dago. Nire amak errandakoak, bertze lagunei aditutakoak, bertzerik ez dakit, gauza garbirik ez!

– Tira ba, erran zergatik!

– Hara, istorioak dio, aspaldi, hemendik ez urrun diren Zugarramurdiko eta beste harpeetan, euskaldunok besta hagitz handiak ospatzen genituela egun seinalatuetan, beti ere naturarekin bat egiteko asmoz, eta kobazuloetan barrena, suaren inguruan dantzan, zirkuluak egiten genituela musika lagun genuelarik. Han, gizon zein emakume, edonor egoten ahal zen, ez zen gizonezkoentzat bakarrik, bertzenaz gizajoak erabat aspertuko baitziren –apoa idiaren bizkarrean bezala– zeren dena ez baitzen dantza eta zurrupa...

– Zer gehiago zegoen ba amatxi?

– Beno ume, hamar urte besterik ez duzu eta delako hori beste kupel bateko sagardoa duzu, maitia. Besta horietaz gain, ba omen ziren herrian bertan plazan egiten zirenak ere: guda dantzak, uztarenak eta piztiak uxatu edota harrapatzekoak ere.

– Piztiak, zein pizti?

Hamaiketakoa burutu ondoren iristen zen Maddik gehien maitatzen –eta urtetik urtera gehien ikaratzen– zuen une magikoa: joaldunek, ostatuko arkupeetan jantzi ondoren, erritmoa entseatzen zutenarena, alegia. Han egoten zen begira, begiak platerak bezala, ahoa zabalik, eskegitako koadro baten antzera ia arnasarik hartu gabe, belarriak zut.

– Hire arreba hori Mikel, urtero toki berean, eta urtetik urtera adiago zegok...zer dik ba? Zer ikusten dik hemen?

– Ez zekiat mutil! Txikitatik beti izan duk berezia eta une hau bereziki ez dik inoiz galtzen. Beti galdezka zeukeat: Nola egiten duzu hots hori joareekin? Beti berdina da? Zergatik ez dira joareak handiagoak, edo txikiagoak? Zergatik ez dituzue neurri ezberdinetako joareak eramaten? Eta ezin isildu, aizak! Eta gogorrena badakik zer den? Ba, berak joalduna izan nahi duela. Joalduna neska bat! Gure etxekoa izan behar marisukalde hori! Halakorik!

– Bai, Zubietan eta inguruan gero eta ezagunagoa duk hire arrebaren nahi hori, eta bazterrak nahasten ari dira, aspaldiko partez.

– Haserre bizian eta nahastuta egoteko nahikoak gara gure etxean bertan! Ez diagu baba beltz gehiago behar lapikoan!

Halako batean lotu zituzten gerriko ardi larruak, haien gainean estu-estu joareak eta ekin zioten gela erdian dagoen zutabe nagusiari bueltaka joareak probatzen, soinua poliki-poliki erritmo berean uztartuz. Jo, jo, jo, danba egiten zuten joaldunek, erritmo bera markatu nahian, urtero, mendetan zehar zubietar, itureNDAR zahar, gazteek,

oroimenaren lainoetan galtzen den erritual berbera errepikatuz, senak hala aginduta inork ez zekielarik zehatz-mehatz zergatik. Baina egin beharra zegoen, indar misteriotsu, ezezagun, batzuk gurtu beharra zegoen, besoak dilingo mugituz, isipua, zartailua, balantzaka haizean astinduz, espiritu gaiztoen kalterako, gerria eta bizkarra makurtuz kolpeak eman eta joareei soinua atereaz: jo, jo, jo, soinu magikoa, otsoak, sorginak, soroetako eta etxeetako gaitzak uxatu eta uztak babestuko dituen soinu magikoa jira-biraka gela burrunbatsu hartan, etengabe, amaierarik gabe, gero eta ozenago gero eta temosoago, norbait, agian hartza, garai bateko hartza, bere lozorrotik esnatu nahian, udaberriari deitu eta neguari, garai bateko negu amaiezinari, bukaera emateko asmoz. Jo, jo, jo, jo- aldunek ez dute etsitzen, bilatu dute denen arteko erritmo bertsua, bateratua, errepikakorra, mozkorraldi psikologikoa sortzeko gai dena, txamanen trantzearen parekoa; behin barnean sartuz gero beste dimentsio batera eraman zaitzakeena, antzinako erritualen mundura, erritual honen sorrerara, sustraietara, arbasoen bihotzetara, natura gupidagabearegalera, amalurraren altzora.

Gure Maddi joareek sortutako zurrumbilo erritmikoaren oihartzunean murgilduta zegoen. Ile guztiak eta gorputzeko biloa tente zituen eta emeki-emeki uzten zuen bere gogoan hegaldatzen joareen soinu dardarizoan zehar, magiaren, izenik gabeko magiaren, harpean barna sartzen. Hots haien eskutik, joareek sortzen zuten soinutik at, berak beste musika bat –beste ahots bat agian– entzuten, antzematen zuen psikofonia hartan. Antzinako kantak aditzen zituen, euskara arraro batean, euskara trakets batean. Emakumeen berriketak, istorioak kontatzen zituen ahots zahar bat noizean behin gailentzen zitzaien beste ahotsei, eta piztien marruak, eta batzuetan izuaren sentrazioak bizkarrezurra korritzen zion goiti-behiti, arnasestuka uzten zuelarik. Bazirudien Zubietako arbaso guztien arimek une hartan herria bisitatzen

zutela eta besta ikusezina, paralelo bat, ospatzen zutela bizidunak hartaz jabetu gabe.

Maddik pozaren pozez alde batetik, baina hagitz urduri bestetik, entzumena, ikusmena, zorrozten zituen eta jira-bira ero, etengabe hartan murgiltzen zen ohartzeko, nahi gabe, urrutiko esku batek heldu eta erakarriko balu bezala eta trantzean sartzen zen inor konturatu gabe. Joaldunak bere ardi-larruetan barna, joareak ongi uztarturik, oilo lumaz bukatutako ttuntturroak (kapelak, alegia), ongi ezarriz, antzeman ezina zen zeremonia txamanikoan murgiltzen ziren.

– Maddi, Maddi, askotan saiatu naiz zurekin hitz egiten... –aditu zuen, edo horrela iruditu zitzaion 10 urteko Maddiri goiz hartan. Baina, berehala bere onera etorri eta izerdi patsetan zegoela konturatu zen. Dardarka, urtarrileko egun hotz hartan inori begiratu gabe etxepetik atera eta bere baserriko bidea hartu zuen burumakur, deus erran gabe.

Etxean ez zegoen inor eta astia izan zuen izerdiak xukatu eta itobeharra baretzeko. Ez zuen konprenitzen nola, nork, zergatik, hitz egin zion leku hartan... edo agian amets bat besterik ez zen izan. Amets bat itzarrik? Ba al da halakorik? “Amatxirekin hitz egin behar dut”. Esan zuen bere kolkorako nerabe bihurtzeko zorian zegoen neskatoak. Baina ez zion ezer kontatu.

Bestak joan eta etorri ziren, behin eta berriro. Hurrengo bizpahiru urtetan gure neska pittikak aldaketa, beldurra, urduritasuna, sumatzen zuen egun seinalatu hori iristean, eta denen harridurarako askoz modu diskretuago batean bizi izan zituen azken iyoteak, inorekin tematu gabe. Etxekoek, herrikoek, pentsatu zuten, kito! dagoeneko zentzatu da eta pasatu zaio joaldun izan nahi hori. Beste iskanbila bat gutxiago, asko

baititugu bestela ere herri eta mendi bedeinkatu hauetan. Bake santua.

Baina baziren etxe hartan, bi pertsona oraindik orain auzi hori bukatutzat eman ez zutenak: Amatxi eta Maddi bera. Amatxik bere biloba bereziaren pista jarraitzen zuen egun batean bai eta bestean ere, hark jakin baitzekien ume hura ezusteren bat emateko jaioa zela, eta Zubieta inguruak berandu baino lehen –ez zekien nola– aztoratuko zituela. Bestea Maddi bera zen, zeinak nahiz eta egun hartan entzundako ahotsak sortutako beldurra hezurretaraino sartu, iyoteak urrutiagotik modu berezi batean bizitzen, sentitzen, jarraitzen baitzituen. Horrekin batera nerabezaroa bularretan eta biloan agertzen, nabarmentzen hasi zitzaionean, gauean, ametsetan zegoenean mundu ezezagun horretan, gero eta maizago, gero eta garbiago, ahots bat entzuten zuen

–Maddi askotan saiatu naiz zurekin hitz egiten– eta une hartantxe esnatzen zen. Mezuak gero eta ugariagoak ziren, gero eta zehatzagoak, gero eta lasaigarriagoak. Bazirudien bere ametsetan sartzen zen espiritu hori ez zela gaiztoa, nolabait esateko, berarekin komunikatzea zuela helburu eta bertzerik ez.

Egunerokotasun horretan iritsi zen une bat non negar batean amari hurbildu zitzaion eskuak odoletan, aurpegia zurbil eta malkoak begietan.

Amak eta amatxik, kontatu zioten egunen batean izango zuela zerbait berezia, bere gorputzak isuriko zuela odola, haurtzaroa utziko zuela une horretan, munduari beste begi batzuekin begiratuko ziola aurrerantzean, emakume bihurtuko zela eta emari hori hilabetero etorriko zitzaiola baina ez zela ezer kaltegarria, ez gaixotasun arraro baten seinale, emakumeek bere naturan mundua, bizitza, sortzeko ahalmen

paregabe, magiko, ulertezinaren marka, patua, zela eta une horretatik helduen munduan sartuko zela.

Maddik bazekien hori guztiori; azken boladan maizago errepikatzen zizkioten argudio horiek, baina berak ez zeukan heldua izateko presarik ez eta mundua edo bizitza sortzeko premiarik; nahiko zuen bere amets ulertezin horiei interpretazio logiko bat bilatzearekin eta ezuste horretan aurkitu zuen bere burua goiz batean, bere izterrak kolore gorri margotuak aurkitu zituenean.

Iragan ziren odolaren izuak, ametsek jarraitu zuten bere bidea eta Maddiren barnean ez ziren ez mundua ezta bizitza ere piztu. Beste zerbait izan zen azaleratu zena. Eta, azken hiru urtetan lozorroan utzi zuen joaldun izateko grina hura, indarberritu egin zen. Beste diskrezio batekin, inor aztoratu gabe baina garai bateko intentsitate berriarekin hasi zen dastatzen ospatzeko hilabete eskas falta zitzaion iyoteak, iyote maite, zirraragarriak.

Maizago hurbiltzen zen joaldunak izango zirenengana, kalean, haien artean pozaren pozez egunero hizpide zuten festa: larruak non dituk, eta isipua, eta joareak?

– Aurten gizendu haiz Martin, ez zaik gerrikoa sartuko. Gogotik estutu beharko diate gerri puska hori. Badakik zer egin behar duken falta den hilabete honetan, ardo eta puska gutxiago jan eta lan gehiago egin, alproja halakoa!–.

Halakoak ziren eguneroko ika-mikak eta berriketak Zubietan, Ituren eta mendi berdez inguratutako herri haietan. Giroa egunetik egunera pizten eta puzten zihoan eta besta usaintzen zen nahiz eta egun dexente falta izan.

Maddik ere ezin zion ihes egin jai giro horri eta magia horretan utzi zion kulunkatzen

bere gogoari, berriro ere. Halere, aurten zerbait berria sumatzen zuen, deia, bai dei berezi bat, gonbidatzen zuena bereziki joaldunen prestaketan parte hartzera.

Eta egun seinalatua iritsi zen. Joaldun koadrila bat hasi zen herria zeharkatzen aterik ate burrunbaka, puskak biltzen, eta arrautzak, eta arnoa eta baserrietako hainbat irribarre eta animuak ere bai. Herriak eta bertako herritarrak piztu egiten ziren hasi ume mokoenetik eta aitatxi xaharraren begi-zulo zimurtuetaraino. Bestak edonori irekitzen zion bere magia, bere alaitasuna; eta berrietek, irriek, agerian uzten zituzten hordiaren hortz ustelak eta amonen ezpain zimurtuak, mintzo nahian.

Gazte joaldunek inkontzienteki, birari, biltzeari, uzta mota bati, gogo alaitsuen uztari, ekiten zioten hotzez eta arnoz gorritutako masail ederrak agerian. Zaharrek gazte haiengan beraiek bizitutako gaztaroa erreparatu, gogoratzen zuten, une iheskor batez, urtean behin eta malko batzuek ere korritzen zituzten haien aurpegietako ximurrak.

Maddik pauso lasai eta kontrolatuaz, iyotea, parodia guztia, urrutitik behatzen zuen, bihotza golkoan, azken hiru urtetan metatutako erre karen urak gainezka, oldartzekotan zituelarik.

Egin zen errituala, hamaiketakoa, bapo jarri ziren arrautza, gasna, eta pusketaz eta sabela berdindu ondoren, arnoaren pil-pilaren poderioz, giro alaitsuan hasi ziren murgiltzen joaldunak.

Maddi, oharkabean, erdi trantzean zegoeneko, modu diskretuan, ia hautsik harrotu gabe eta inguruko zalaparta eta begiradei erreparatu gabe, ostatuko arkupeetan, bere txikitako txokoan pausatu zen usapala bere adarrean bezala, hautsa batere harrotu gabe.

- Aizak Manu! Berrero etorri duk aspaldiko partez hire arreba hori, eta nexka puska egina dagoela onartu beharra zagok! Urte batzuk barru hemendik Iturenera baino kurba gehiago izango ditik, eh?
- Hi erne ibil hadi, aittu? Neska hori nire arreba duk eta errespetua zor diok, alu halakoa! Pausa itzak hire begiak etxeko komuneko zuloan nahi baduk!
- Beno, txo! Ez duk hainbesterako! Lasai hadi!
- Eman ezak bakea, babo halakoa!

Maddik denbora aurrera joan ahala, ahotsak, zurru-murruak sumatzen zituen eta ez bertan zeuden bizidunenak, hain xuxen. Bere begietarako bakarrik, beste edonorentzat ikusezinak ziren aurpegien desfile bat hasi zen eta espiritu horiek bera errespetuz agurtu ondoren, joaldun baten gainean, nolabait errateko, pausatu ziren. Azkenean amona zahar baten irudia islatzen zuen espiritu bat hurbildu zitzaion.

- Maddi, lehen aldia da ikusten nauzula baina lehendik mintzatu gara ametsetan, ezaguna nauzu. Zurekin aspalditik egon nahi nuen baina gizakiaren aroak errespetatu beharra dago eta jadanik unea heldu da, odola isuri duzu, emakume gaztea zara eta sufritzen duenak jakingo omen du maitatzen eta ulertzen ere. Iritsi zaizu nire mezua ulertzeko tenorea. Zure amatxiren ama nauzu laztana!

Maddirengan urduritasunak eta izuak eztanda egin zuten, baina etorri bezala azkar joan ziren konfiantza eta lasaitasunari lekua utziz.

- Baina nortzuk zarete, nor zara zu? Zergatik jartzen zarete joaldunen gainean, zergatik besteek ezin zaituztete ikusi eta nik bai?

– Maddi, zu dohain bereziekin jaio zinen nahiz eta zerorrek jakin ez. Baina bada garaia dohain horiek ager daitezen eta ez inoren kalterako, mesederako baizik. Halere, kontu izan! Betiko mintzo gaiztoek oraindik orain sorgina deituko dizute, baina gaur egun ez da garai batean bezain arriskutsua, bezain penagarria.

– Baina zer dohain dira horiek, zertarako erabil ditzaket?

– Besteen gogoia irakurtzeko gaitasuna izango duzu, haien arimek ez dute sekreturik izango zuretzat eta hori jendeak ez du gustuko eta agian zuk ere ez, baina horrela da. Naturak ez du sekreturik izango zuretzat. Sendatzeko gai izango zara eta baita gaixotzeko ere. Hemen ikusten dituzun beste espiritu hauek Zubietako arbasoak dira eta hilda egonik ere ez dute galdu nahi iyote paregabe hau. Zaude lasai, ez gara gaiztoak. Eta azken gauza, Maddi, ni ez natzaizu gehiago agertuko modu honetan, zuk beharra daukazunean deitu ahal izango didazu, bestela bakean utziko zaitut, ahalmen hauek zuri pasatzeko etorri naiz, niri beste arbasoek pasatu zizkidaten bezala: “Haria ez dadila eten”.

Eta hau esan ondoren, espiritu guztiek irrintzi ozen bat jaurtikiaz desagertu egin ziren amen batean. Maddi une horretantxe esnatu zen trantzetik eta konturatu zen ostatupeko guztiak, joaldunak zirenak eta ez zirenak, adi, so zituela, txintik erran gabe, ahoa bete hortz.

– Baina zer gertatzen zaizue? Zergatik begiratzen didazue horrela? Zer gertatzen da Manu?

Manuk begiak zabal-zabalik zituen eta ez zuen erantzuten.

– Manu zer duzu? Erran!

Manu itzartu egin zen, bat-batean.

– Irrintzi egin duzu, irrintzi lazgarri, ozena, tximista baino indartsuagoa eta lurrari iltzatuta utzi gaituzu. Zer duzu Maddi? Ongi al zaude?

Maddik ez zuen erantzun eta burumakur, halako esperientzia harrigarriek uzten duten zamapean, ostatupetik poliki-poliki atera zen ulertu nahian, sinetsi nahian, ttuntturroek eta jendeak bidea errespetuz, beldurrez, jakin-minez, irekitzen ziotelarik.

Halako batean joareen soinu izoztua berriro berpizten hasi zen eta joaldunek sototik atera ondoren, Maddiren atzetik aurrera egin zuten. Orduan Maddi bueltatu eta bere harridurarako, atzean zituen joaldun guztiak pulunpak astinduz, berari begira, bere zain antza. Bi lerroak aldendu eta joaldun zaharrena zetorkion soineko eta tresnekin eskuetan. Maddik ez zuen deus ulertzen, baina dena sekretupean idatzita balego legez, eta erritual bati mekanikoki erantzunez, joaldunez jantzi zuen: mahonezko galtzak, azpigona zuria, ardi larrua, ttuntturroa, zapi gorria eta isipua eskuan hartuz joaldun taldearen atzealdean kokatu eta Zubietako karrikak korritu zituen atzera eta aurrera behin eta berriz, harik eta herritik atera eta ltturengoan bila errekastoraino abiatu ziren arte.

Harrezkero, Zubietako zaharrek, adituek, diote inoiz ez dutela hain soinu bateratua, ozena, misteriotsua, erditu sekulan joaldunek.





MOMOTXORROAK

Gaur egun Altsasua altxatzen den ingurune horretan, bada haran luze bat, korridore antzekoa, Andia-Urbasa-Entzia mendilerroak hegoaldetik eta Aralar-Aizkorrik iparraldetik mugatzen dutena eta istorio honen kokalekua izango duguna.

Erromatarren etorrera baino lehen populazio txikietan banatuta zegoen baskoi leinua, artzaintza bizimolde hedatuena zelarik inguru horietan. Bertako mendiek, Urbasa kasu, sostengua eskaintzen zieten bai ehiza zein eraikuntzarako.

Ingurune horiek, jakina, basapiztiz josita zeuden, oraindik gizakiak ez baitzuen naturaren handitasuna menderatzeko ahalmenik, eta hark markatutako erritmo eta aroek agintzen zuten egun batean bai eta baita bestean ere.

Urbasako basoak harresi gaindiezin bat osatzen zuen herrixka txiki haien gainean, bere handitasuna erakutsiz goizero eguzkia edo lainoa, berdin zion, baskoien begietan islatzen zenean.

Halere, natura ezagutu eta errespetatzeaz gain, beti zegoen gizaki haiengan harekiko lehia eta poliki-poliki urtero, sutarako, edo etxeak egiteko, edo armetarako, edo etxe-abereentzat larre berriak izateko, naturak pittin bat besterik ez bazen ere, amore eman beharra zeukan. Hori bai, basoko jeinuak, espirituak, gaiztoak zein onak gurtu ondoren, gehiegi haserre ez zitezen.

Baskoiek, beste euskal leinuek bezala, jarraitzen zuten jeinuek osatzen zuten kosmogonia gurtzen, eta Marirekin batera Ortzi zuten zeruko nagusia eta ohikoa zen Basajaunaren zantzuak antzematea eroritako harkaitz zein zuhaitz lardenetan.

Erromatarrak hegoaldetik sartzen hasiak ziren euskal lurretan baina Altsasu inguru horretara iritsi baino lehen, gauza harrigarriak gertatzen hasiak ziren Urbanan barna.

Jatsu gaztea duela bi ilargi arte bere aita zenak utzitako artalde bat zaintzen ari zen Urbanako maldetan, bere herrixkatik gertu. Zaldia eta artzanora txakur galantarekin abiatzen zen udazkenaren hasieran mendi magaleko larre goxoenak, freskoenak, bilatzera. Eguna amaitzean inguru hartan zegoen harrespila baten barnean gordetzen zituen ardiak eta bere bi abereen laguntza soilarekin igarotzen zuen gaua sutondoan, loak hartzen zuen arte. *Izu* izeneko artzanora galanta zen armarik baliotsuena, zelatan egoteko, piztien segadak antzemateko eta era berean otsoen erasoei aurre egiteko. Horri guztiorri gehitu behar diogu arkulari aparta zela gure Jatsu.

– *Izu* lagun galanta –esan zion bere ondoan etzanda zegoen txakur puskari– jakingo bahu zenbat botatzen dudan faltan aita zenaren laguntza eta beharra! Badituk bi ilargi bueltatu ez dela eta oraindik, egun batean, etxeko atarian edo larre batean ikusiko dudalakoan nagok! Zer gertatuko zitzaion basora ehiza bila joan zen egun madarikatu hartan? Bere zaldia bakarrik itzuli huen adurra zeriola, begiak bere onetik aterata.

Orduan *Izu* altxatu eta letaginak erakutsiz, zaunka hasi zen basoaren mugetan zegoen zerbaiti. Begi iheskor batzuen distirak zeharkatu zuen basoaren muga, iluntasunean desagertzeko.

– Ongi *Izu*, hi haiz hi txakur puska! Aitak izan bahindu, hemen legoke seguruenez. Tira! Enbor bat botako diat sutara lasai lo egiteko. Lotara, txakurra!

Hurrengo goizean, artaldea harrizko esparrutik atera ondoren, eztarria arnoz bustitzen ari zenean herrixkatik gora zaldun bat ikusi zuen hurbiltzen.

– Etxeko zaldi pinttana duk! Eta Xankar anaia txikia zetorrek gainean. Zer ote, ordu hauetan?

Bere zaldi gainera igo eta *Izu* artaldearekin utzi ondoren maldan behera abiatu zen.

– Zer dugu Xankar? Nolatan hemendik?

– Jatsu, herrira etorri behar duzu –zioen arnasestuka–. Amak bidali nau, zatoz! Agudo!

– Baina zer duzu, txiki? Zer gertatu da?

– Aimartarren etxeko nagusiaren zaldia agertu da herrian atzeko hankak odoletan, sekulako atzaparkadekin. Ikusi egin behar duzu.

Mutikoa ez zen lasaitzen. Bazirudien berak zaldi hura begien aurrean izan zuela eta ikusitakoak dardarizoa sortzen zion oraindik.

– Tira Xankar, lasaitu. Zoaz artaldea dagoen belardira, jaso eta ekarzu etxera, baina lasai, urduritu gabe. Ez ditut ardiak korrika ikusi nahi, aditu?

– Bai Jatsu, bai, zoaz lasai.

Bere anaiari azken begirada boteaz, Jatsuk ekin zion etxeko bideari egonezaren harra

gorputzean sartuta.

- Ume hauentzat edozein gauza da ikaragarria edo zoragarria. Ipurterre halakoak!

Herrira iritsi ahala konturatu zen ezohiko iskanbila zela nagusi. Jende aunitz zegoen kalean, denak builaka, zirkulu bat osatuz. Zirkuluaren erdian zaldi bat hilzorian zegoen, izterrak eta sabela lehertuta, porroskatuta, odoletan. Zalditik jaitsi eta jendea aldenduz, bere ezpata motza zorrotik atera eta lepoa moztu zion amen batean abere odoltsuari.

- Jatsu, harro hori, zer uste duzu? Zer dela eta tontakeria hau?
- Tontakeria diozu? Eta zuek zer ari zineten, galdeketa egiten zaldiari edo eta bere tripetan iragana, gertatutakoa, asmatzen? Tira, abereak ez zuen merezi sufrikario horretan jarraitzea, Zoko, eta zuk egin behar zenion hori hasieratik!
- Zu beti bezain argi eta harroputz, inori ezer galdetu gabe erabakiak hartzen. Leinuaren nagusia zarelakoan, ergel hori?

Zoko zaldi odolustuaren gainetik pasa eta esku bat ezpata buruan estu atxikirik, Jatsurengana hurbiltzen hasi zen bafaka.

Bat-batean, jendartetik makiladun gizon bizartxuri zahar bat bien artean paratu zen: Ostots zen, herriko aztia.

- Aski da! Egun batean bai eta bestean ere, beti zaudete norgehiagoka antzuan, bata bestea gailendu nahian, baina zuen nagusigoaz gain hemen herri bat dago, herri bat babestu eta defendatu beharra, eta horretarako

indarraz gain beste zerbait, oraindik erakusten ez duzuen jakinduria, behar duzue erakutsi. Badira bi gizon, bi guraso, zuenak hain zuzen, desagertu direnak. Zure aita aurrena, Jatsu; eta orain, Zokorena. Ez zaizue harrigarria iruditzen bi buruzagien inguruan gertatutakoa? Ez da kasualitatea, hemen istripua edo patua baino zerbait gehiago dago dantzan...

Herritar guztiak isilik zeuden, ez zen ezer aditzen, une batez etena egin zen, denen begiak Ostotsen ezpainetara so zeuden, azalpen baten zain.

– Gaur gauean leinuko buruzagien bilera izango dugu kobazuloan!!

Hau esan ondoren bakoitza bere txabolara aldendu zen. Gizonik indartsuenek lurrean zulo bat egin eta egurrez eta iratzez bete ondoren zaldi hila bertara irauli eta sua eman zioten.

– Espiritu gaizto batek urratutako haragia ez da ezta txakur gosetiaren jakia bilakatu behar! –erran zuen Ostots aztiak.

Erreketaren ondoren makila zorrotzez inguratu zituzten errautsak, zirkulu hertsiki horretatik gera zitekeen espiritu gaiztoaren azken hatsak ortzirantz ihes egin ahal zezan, herria kutsatu gabe.

Ilunabarrean hamar buruzagiak eta Ostots aztia, Urbasako lehen harkaitzetan zegoen kobazuloaren ahoan bildu ziren. Sua piztu eta ezpataz zein makila zorrotzez osaturiko zirkulu baten barruan ekin zioten hitzorduari.

– Sakanako beste leinuetatik gero eta zabalduago den berria iritsi da guregana: Leinu arrotz, indartsu bat gero eta gudaldi gehiago burutzen ari da euskal jendearen aurka. Oso indartsuak dira, ongi armatuak eta nonahi

eraikitzen dituzte harrizko bideak eta gotorlekuak. Ez dute ez ume, ez emakume ezta adineko jenderik ekartzen, gerlariak bakarrik. Ez dakigu zer nahi duten, zenbat denbora geldituko diren, baina uste baino lehenago gure anai-arreben laguntzera joan beharko dugu.

– Hori guztia arrunt interesgarria eta kezagarria da Ostots, baina zer ikusirik dauka bi buruzagien desagerpenarekin? –galdetu zuen Jatsuk–.

– Ni aztia naizenetik ez dut halakorik ikusi eta gure espirtuekin, modu batean edo bestean harremanetan nago. Gurtu ditugu Mari, Sugaar, Basajaun, eta beste hainbeste jainko-jainkosa gure abereak, etxaldea, bizitza, Urbasako harkaitzetatik zain ditzaten eta horretarako eskaini ohi diegu leku sakratu honetan abereen odola, fruituak, ogia, arnoa, beren egarri etengabea ase dezaten, baina azken bi ilargietatik hona, nire ametsetan irudi, espirtu berri bat agertzen ari da. Ezin dut ikusi, ez dakit nolakoa den baina beste guztiek muzin egiten diote, ez dute ezer jakin nahi berarekin eta izerdi patsetan esnatzen naiz behin eta berriro, gero eta maizago, eta gero eta ahulago sentitzen naiz. Hurrengoa ni izango naiz! Eta bere agerpena gerlari arrotz horien etorrerarekin lotuta dagoela esango nuke.

– Zu hurrengoa, Ostots? Baina nola, ezin zaitu harrapatu! Ez zara inoiz herritik ateratzen, barren!

– Ez da inora joan behar Mamotxorroekin topo egiteko.

– Mamotxorroa? Zer da hori? –galdetu zuten denek–.

– Ez dakit, hori da zuek, Jatsu eta Zoko, jakin behar duzuen. Garbi dago

espiritu gaizto hori orain arte, euskal jendea erasotzen ari diren gerlari arrotz horiek etorri arte, lozorroan egon dela Urbasako basoetan eta orain zerbaitek edo norbaitek esnatu egin duela gure herriaren galzorirako. Eta azken gauza bat esan nahi dizuet bioi: segur aski mendeku gose igoko zarete basora, baina garbi izan Mamotxorro aurkitu baino lehen, hura esnatu duen zioa aurkitu eta desagerrarazi behar duzuela, bestela espiritu horren aurka ez duzue zereginik, indartsuegia da zuentzat, edonorentzat, nire magiak ere ezin du ezer egin bere amorru ase ezinaren aurka. Horrela jokatzeko ez baduzue, zuek biok eta gero gure herri hau desagertu egingo da, akabatuko gaitu, banan-banan.

Gordinegia zen Ostotsek eskaini zien ikuskizuna. Hala ere, beraien aiten desagerpenak egonezina, jakin-mina, ezintasuna, amorrua, mendekua, eskatzen zien eta gainera ezin zuten elkar ikusi; baina, horren guztiaren gaintik, herriaren, leinuaren, babesaren zegoen.

Zokok eta Jatsuk, bidaia prestatzeari ekin zioten. Ez zuten zama handirik eramango; ehiztari trebeak ziren biak, basoak emango zien behar adina. Gainera, bidaiak ezinbestean motza izan behar zuen, lehenbailehen argitu beharra zegoen misterioa: gerlarien inbasioa, espiritu ankerrarena, eta etxera itzuli segidan.

Euskal leinuen armak eraman zituzten: larruzko brokel txikia, ezpata motza, eta haginaren zur indartsu eta malguaz egindako arkuak. Horrekin batera Jatsuk bere artzanora *Izu* eta Zokok belatz dotore bat, ehizarako azkarra eta aproposa zeramaten. Herritarrak agurtu ondoren, Urbasako baso hertsian irekitzen zen bidezidor bakarraren ahoan sartu eta desagertu ziren.

Urbasa ezezaguna zen herriarentzat. Antzinatek irekita mantentzen zen bide

misteriotsu hura zen pago erraldoiez osatutako egurrezko harresi ikaragarri hartan urradura bakarra.

Otsaportilo deituriko argiunera iritsi ziren, pagoen hostoek haizearekin jostatzean erditzen zuten uluaren laguntzaz. Lehen gaua han eman zuten, sutzar baten inguruan txandaka lo eginaz. Urduritasunak eta bidaiaren helburuak ahantzarazi zien haien arteko lehia eta halabeharrez hobeto konpontzen hasi ziren. Ehiza egin zuten bakoitzean, odolez inguratutako puska, harlauza baten gainean jarri eta basoko espirituei eskaintzen zioten, beraien beharrak asetu eta onespina lortzearren.

Bigarren egunean maldan gora abiatu ziren, beti ere talaia edo muino baten bila, ea horrela zerbait garbiagorik atzeman zitekeen. Azkenean, eguerdi partean mendizerraren mugara iritsi eta ikuskizun paregabea ireki zen begi bistan: amildegia eta han behean, sakana, herrixka bat, etxe-abereak, erreka, eta bestetik Urbasako baso amaiezinak eta ekialderantz... zurrumurru, arrabots baten zantzua eta kea. Basoa erretzen ote?

Harantz abiatu ziren besterik ezean, baina aurrena Zokok mendizerrak eskainitako talaia profitatu zuen, belatzari ehizarako aukera paregabea emanez eta txori aldra bat antzeman ondoren, ortzirantz jaurti zuen harraparia.

– Tira txikia, harrapa ezan zerbait Zokorentzat!!

Berehala etorri zen uso bat atzaparretan, baina hura espirituei eskaini beharra zegoen, eta bigarren hegaldian gauzatutakoa istant batean jan zuten bi bidaiariek.

Gauerako iritsiak ziren zarataren sorlekurantz eta zaldiak lotu, belatzari kapusaia jarri eta txakurrari uhalez muturra lotu ondoren, arrastaka, muino batera iritsi ziren. Ezin

zuten sinetsi ikusten ari zirena: suzko biribil handi baten inguruan, kasko eta jantzi distiratsuzko gerlari batzuk, zaldietatik lurra zulatzen, harriak lantzen eta garraiatzen ari ziren anaia baskoiak zaintzen zituzten. Ematen zieten tratu bortitzagatik garbi zegoen lanean ari zirenak derrigortuta zeudela han. Hizkuntza arrotz batean mintzo ziren gerlari distiratsuak.

Harrizko bide bat eraikitzen ari ziren Lizarraga aldetik eta norabidea markatzen zutenek seinalatzen zuten norabideagatik, beraien asmoa antzeman zitekeen: Urbasa alderik alde, harrizko urradura batez zeharkatzea, hain juxtu beraien herriaren norabidean.

Harrizko bidearen inguruan kanpaleku txiki bat zeukaten: alde batetik distiratsuen dendak eta bestetik egurrezko adar sendoez osatutako kartzela zirkular bat gerlari batzuen zaindaritzapean, baskoiez beteta zegoena.

Zerbait egin beharra zegoen eta azkar! Hura izan zitekeen Urbasako espiritu gaiztoa esnatu izanaren arrazoia... baina zergatik ez zien arrotzei erasotzen?

Gaua iritsi zen eta Jatsu eta Zoko beraien zaldiengana hurbildu eta bakoitzak albo batean lotuta zeraman ohola askatu eta iratzez eta belarrez estalitako bi harriren gainean paratu zituzten. Zoko berriro kanpalekua zelatatzeraz hurbildu zen eta Jatsuk txalaparta jotzeari ekin zion. Soinu magiko, misteriotsu, hura airean zabaltzen hasi zen. Aurrena Urbasako espirituak agurtzen zituen barkamena eskatuz beraien lurretan sartzeagatik eta gero, bigarren mezua bere herriko aztiari, Ostotseri, bidaltzen zion erantzun bila.

– Zer egin Ostots? Arrotzak sartu dira Urbasan. Euskaldunak preso dauzkate eta Amalurra urratzen ari dira.

Haizeak eskaintzen zion mezua entzun eta Ostotsek berehala arrapostu egin zuen:

- Aurrena abisatu euskaldun presoeri. Gero arrotzen buruzagia harrapatu eta Mamotxorreri eskaini. Azkar!

Zokok harkaitz gibeletik kanpalekuko harat-honatak behatzen zituen. Gerlariak mugitzen hasiak ziren, zerbait arraroa, ezezaguna, arriskutsua sumatzen baitzuten soinu hartan, baina inor ez zen suaren argitasunaren mugak zeharkatzera ausartzen. Baskoi presoan artean, ordea egoera bestelakoa zen. Lotan ziruditen batzuk altxatu eta adi-adi zeuden une hartan Jatsuk bidaltzen zien mezua entzuten:

Txalapartak erran zuen:

- Erne baskoiak, lagunak gara. Zuek askatzen saiatuko gara. Lortzen badugu gailurrean elkartuko gara.

Txalaparta isildu egin zen ...

Erromatar gerlariak ulertezina zitzaien egonezina nabaritzen zuten. Urduritasuna nagusitzen ari zen kanpalekuan.

Hegazti bat pasa zen pare bat bider baskoien buru gainetik eta zerbait askatu zuen presoan esparru erdian. Kuttun bat zen. Batek lurretik hartu, ilargiaren argirantz jiratu eta... lauburu bat antzeman zuen. Bizkorrenen artean ahoz aho zurrumurrutik bat hedatu zen eta esparruaren leku estrategikoetan zutitu eta kokatu ziren.

Geroxeago laban bat eta ezpata motz bat erori ziren barruan, inguruko sastraken artean abere handi bat mugitzen zen une berean. Erromatar zaindariak harantz zuzendu ziren interes planta eginez baina suak ematen zuen argitasun zein

kanpamenduaren segurtasunetik gehiegi aldendu gabe. Ez zuten bizitza alferrik arriskuan jartzeko batere gogorik.

Presoen buruzagiak prest zeuden erasoari ekiteko eta une hartan, haizeak bidalitako ziztu bat balira bezala gezi beltzek zeharkatu zuten airea zaindarien lepoa zulatuz, odoletan itota azken hatsa bota nahi, baina ezinean, lurrera erori ziren arte.

Txakur, otso edo halako abere erraldoi batek jauzi egin zuen zaindari erori berriengana zetozen bi gudarien gainean, izua zabalduz kanpalekuan. Hegazti basati batek haizean parabolak eginez erromatarren aurpegietan jartzen zituen bere atzaparrak behin eta berriz.

Anabasa hura guztia profitatuz, presoek langa lotzen zuen soka ebaki, kanpora jauzi eta lurrean zeutzan soldaduen armak bere eginez beste erromatar harrituak kontra oldartu ziren.

Basotik haginaren zurez egindako arku bortitzak jaurtitako geziek etsaiaren paparra, lepoa, zulatzen zuten izua zabalduz, ilargiak edo Gauekok bidalitako ziriak balira bezala.

Beste baskoi bat arroka batetik jauzi eginez, brokela eta ezpata erabiliz, borroka bizian ari zen askatu berriekin batera eta arkulariari keinu eginez erromatar buruzagiaren dendarantz abiatu zen hura harrapatzeko asmoz. Jatsu eta Zoko ziren.

Erromatarrek ez zuten ezer ulertzen eta baskoiak gaua lagun, txikizio galanta sortzen ari ziren haien artean.

Zoko, Jatsu eta artzanora galantak topo egin zuten buruzagiarekin, armak eskuan eta harridura begietan. Berehala ulertu zuen bere bila zetozela eta aurre egitera ausartu

zen baina berehala zuen lepoan Jatsuren ezpata zorrotzaren muturra eta Zokoren arku galanta tenkatua, zintzurrari so.

Hirurak harkaitzen artean desagertu ziren amen batean eta erromatarrek, espantuak jota, ihesari ekin zioten Lizarragarantz. Sua kanpalekuko jabe berria bilakatu zen eta baskoi askeek orain etsai batzuk zituzten preso. Pozik zeuden, baina era berean artega. Beraien askatasuna eskaini zioten anaien oihu edo beste seinale baten zain.

– Non zaudete? Nortzuk zarete? Ager zaitezte!!

Handik gutxira Jatsu eta Zoko erromatar buruzagiarekin agertu ziren

– Gabon anaiak!

– Zergatik lagundu gaituzue? Ez genuen espero inor topatzerik baso zahar hauetan.

– Anaiak, erromatarrek Urbasako baso sakratu hau urratzen hasiak dira harrizko bide hori, zauri odoltsu bat bezala irekiz basoan barrena, zuhaitzak boteaz, harriak eta amalurra zaurituz eta basoko jeinu on zein gaizto guztiak esnaraziz. Eta jeinu gaiztoen artean gaiztoena esnarazi dute, gure herri errugabea odolusten aridena, Momotxorroa. Ustez erdi-zezen, erdi-gizaki, Urbasako jeinurik gupidagabeena. Bere basoan gertatzen denaren erruduntzat jotzen gaitu, gu baikara bere mugetatik gertuen bizi garenak betidanik; beraz, guri dagokigu amalurrari eta basoari berea dena itzuli, eta egindako kalteagatik eta sekulan inoiz berriro halakorik suerta ez dadin, odolezko eskaintza burutzea eta babestea.

– Eta zer edo nor eskaini behar diozue?

– Erromatar buruzagiak eta preso hartu dituzuen gudari horiek euren begiez ikusi beharko dute odolezko eskaintza hau, kideei eskarmentu bezala kontatu eta lur hau berriro urra ez dezaten.

Hasi ziren eskaintzaren prestaketak. Gaua amaitu aurretik behar zuten egin, Momotxorro jeinua gauekoa ei zen eta.

Zuhaitzez soildua zen belardi erdian enbor bat sartu zuten lurrean eta bertan buruzagia lotu armak oinetan zituelarik. Handik bi metro tara, baskoi presoak gordetzeko zegoen egurrezko esparruan, atxilotutako etsaiak. Buruzagiaren aurpegia borrokan hildako baten odolez blaitu zuten eta baita haren gorputz adarrak ere. Erromatarra izuak hartuta, bere hizkuntzan isildu gabe mintzo zen adurra zeriola. Begiak lehertzeaz zituen beldurrak jota.

Presoak beraien artean mintzo ziren buruzagiari begira. Zerbait arraroa, beldurgarria, antzematen zuten.

Jatsu eta Zokok errukiz begiratzen zioten enborrean lotuta zegoenari baina norbaitek ordaindu behar zuen basoari egindako kaltea eta ez ziren baskoiak izango. Dena den, beraiek ere ez zekiten zein zen jeinu hori eta zer gerta zitekeen, eta urduritasuna handituz zihoan haien artean. Bat-batean orro ikaragarri bat atera zen pagadiko zuhaitz guztien gainetik, inoiz entzundako marru bortitzena, bihotz ausartena ere izoztuta uzteko modukoa.

Baskoiek ulertu zuten eta txintik atera gabe mendizerraren muinorantz abiatu ziren isilik, lasterka, kanpalekua sugarraren anparoan eta izuaren itzalpean utzita. Erromatarrek ere entzun zuten baso barrenetik zetorren orro beldurgarria eta ihes egin nahian ibili arren, esku eta oinak lotuta izaki, lurrean zeuden ezinbestean.

Basoa aztoratzen hasi zela zirudien, zuhaitzak ere norbaiti edo zerbaiti bidea eman nahian ibiliko balira bezala, indar harekin ez topatzeko. Halako batean azken zuhaitzak zeharkatu ondoren agertu zen! Jeinu ikaragarria, erraldoia, zezenaren burua eta gizakiaren gorputza bat eginik, alde guztietara begira, norbaiten bila bafaka, adar erraldoi haiek mugitu zituen ilargia bera zulatu nahiko balu bezala.

Suaren inguruan hasi zen itzulika bere adar eta lepo indartsuaz gaueko haizea urratu nahian, eta errepasso bat eman zion egoerari. Esparru barruan zeuden erromatarrak garrasika, erdi erotuta, beraien buruak jeinu erraldoiaren begi odoltsuetan islatuta ikusiz, azken orena iritsi zelakoan zeuden.

Orduan Momotxorroa jiratu eta erdiko enborrera abiatu zen. Erromatar buruzagia konortea galtzekotan zegoen ezin baitzuen sinetsi ikusten ari zena. Une horretan jeinuak bere atzaparrekin zartakoa eman zion sabela urratuz. Segidan, beste kolpe batez, burua erauzi eta beste erromatar zein ilargiari garaikurra balitz bezala astindu, oihu ikaragarria jaurti eta jauzi batez basoan ezkutatu zen.

Baskoiak ere izuaren menpe zeuden gertuko harkaitzen gibelean gordeta eta bertan gelditzea erabaki zuten egunsentia iritsi arte, imintziorik egin gabe, izuak hartuta. Basoetako Urbasako, jeinua zen. Gupidagabea, baskoiak ere hiltzeko prest zegoena, basoak urratu eta bere loaldia eragozten zuten bakoitzean.

Oraingoz eskaintza harekin bakean utziko zituelakoan zeuden, egunsentiarekin batera erromatar presoek lokarriak askatu eta alde egiten utzi zituztenean. Elkarri begiratzuz hitzik esan gabe ulertu zuten baskoiek helarazi nahi izan zieten mezua: Utzi bakean gure lurra, edo Momotxorroak dagokion ordaina jasoko du.





LANTZEKO PATXAMAMA

Ekuatorreko indiarrentzat Patxamama jenioak esanahi ezberdinak bereganatzen ditu eta tokian tokiko ñabarduren artean pare bat gailentzen dira, hots: Patxamama Amalurra, eta Patxamama Deabru beldurgarria biak lurraren erraietatik sortuak, errai horietara itzultzeko dagokion errituala burutu ondoren.

Milurteko berrira etorriaz, hara non Lantzeko herrian, Nafarroa Garaian, ospatzen den inauteri famatuenetariko bat. Hainbat turista pertxenta zein motxiladunek indiar batzuekin partekatzen dute ospakizun hau, bakoitzak bere erara, bakoitzak behar ezberdinen kariatara.

Batzuk automobil eta furgoneta dotoretan iristen dira argazki makinaz eta arropa koloretsuekin. Gizaki handiak eta zurbilak dira konparatzen baditugu indiar txiki, beltzaran eta trinkoekin. Ele arraroetan mintzo dira duela 600 urte bezala. Batzuk gazteleraz, beraiei halabeharrez ezagutarazi dioten hizkuntza horretan eta besteak, ele arraro ezezagun batean, maiz beraien azoketan janzkera alaitsu eta koloretsuetako motxiladunek, erabiltzen duten horretan. Euskara deritzote.

Ele batzuk dagoeneko ikasiak dituzte, haiekin tratutan merkantzia errazago saldu ahal izateko: *polita, merkea, jantxi?* arraroa egiten zaie bustidura hori: a! *jantzi, bai, sei, zazpi*, “z primeran ahoskatzen dute, euskaldunak bezain ongi” alajaina!!

Ba, hor ditugu gure bi familia indiarrak Lantzeko frontoian, goizean goiz, mantak

lurrean eta era guztietako tramankulu, apaingarri, bitxi, jantzi, top mantak salgai. Beti irribarretsu azal beltzaranarekin kontrastatzen duten hortz txuri eder horiek erakutsiz. Begi beltz sakonak guztiari so, eta motots beltz distiratsua bilduta, haizea astinduz. Umeak bueltaka, builaka ari dira familiaren inguruan, itzuli-mitzulika irribarrea ezpainetan, zerbaiten esperoan.

Ez da hemen dauden lehen urtea eta jakin badakite aurki, eguerdian, neguko eguzki hotza goren dagoenean herria lozorrotik esnatu eta magia berpiztuko dela, kaleak pertsonaia harrigarriaz mukurutuko direla, beste turista guztiak magia horren baitan desagertuz. Miel Otxin erraldoia denen gainetik Lantzen gaindi dantzatuko delarik izua barreiatuz. A!, zer une magikoa!! Beraientzat inauteririk politena da, dudarik gabe.

Dena den, orain postuetan eta gero konpartsaren atzetik saltoka dabilen mutiko indiarrari beti beldur izpi bat sortu dio erraldoi horrek: irribarre maltzurrarekin, begi handi zabalekin, baina une bat besterik ez da izaten, harridura, gozamina, dantza, zalapartak une hori ezerezean uzten baitute.

Igandeko ospakizunaren ostean turista guztiak aldentzen direnean beraien auto dotoretan eta Lantzeko herritarrak baserri ederretan gorde ondoren, indiarrak frontoian furgonetetan afaltzen eta berriketan ari direnean errepasso txiki bat ematen diote egunari, irabaziei, eta ... inauteriei.

Beraiek Patxamama deitzen diote Miel Otxin erraldoiari eta euren herrietako istorioak gogoratzen, irudikatzen, itxuraldatzen dituzte Lantzeko pertsonaiak erabiliz. Emakume zaharrenak inguruan eserita ditu beste kide indiarrak, adiadi, bere ahotik irteten diren istorioak irensteko prest. Urtero legez ari ziren ordu txikietan

kontu kontari ilargiari so emakume gazteek furgoneta zaharrak lotarako prestatzen zituzten bitartean, hain espazio txikia ahalik eta erosoena bilakatzeko asmoz. Halabehararren halabeharrez abilezia galantaz, fardelak birkokatuz, furgoneta kankailua logela komun batean antzaldatzen zen.

Bi umeez ezin zioten logurari eutsi eta amonaren altzoan lokartzen hasiak ziren. Lotara joateko ordua iritsia zen jada. Sua amatatu, azken hitzak eta otoitzak helarazi besoak ilargirantz luzatuz eta furgonetetara sartzen hasi ziren.

Urtero bezala, Kuzko mutiko gazteak ez zuen lortzen loa bere baitan pausatzea eta besteak agurtu ondoren, zigarro bat erretzen gelditu zen, erdi-zelatari, erdi-sorgindurik ilargi bete zoragarriari so. Hiru urte zeramatzan talde horrekin Euskal Herriko txoko guztiak bisitatzen, bizitza berriari egokitzen, arrotza sentitzen, han utzitakoak gogoratzen, herri mina sufritzen...

Bere jendearekin zegoen; baina, bakarrik sentitzen zen, ekaitzaren ostean, eurien bulkadaz basoko zuhaitz eroria errekarra erori eta harrien aurka joka etengabe, harat-honat gelditu ezinean, sustraitu barik dabilenaren antzera. Bere minetan barrena, pipari sua eman eta ke-ponpak jaurtitzen ditu zerurantz ilargi potoloa, ilargi amandrea kezko eraztun horietan harrapatu nahirik.

Lagunen ahotsak emeki-emeki itzaltzen doaz furgonetetan loaren besoetan daudenaren seinale, baina beste soinu arraro batzuk ere, berriak, ez abere ez natura, sumatzen ditu. Zigarroari zurrupa ematen dio ingurumariari zeharka behatuz badaezpada.

Haize zirimolak izango dira... dio bere golkorako.

Bat-batean, gorputzak ibiltzeko premia erakusten dio eta bere oinak nahi gabe, zer dela eta jakin gabe, frontoitik errekarantz abiatzen dira. Azken hiru urtetan askotan eman izan du Lantzen barna halako bueltaxka bat gauez, egunean zehar Miel Otxin, Txantxoak, Ferratzaileak, Zaldiko eta nola ez Ziripoten konpartsa zaratatsuak utzitako lorratz magikoak karriketako izkina bakoitzean birgogoratu nahian.

“Izkina honetan Zaldikok lehen aldiz lurrera bota du Ziripot munstroa. Beste honetan txantxoek neska ile hori bat astindu dute behin eta berriro: (Eta zein aurpegi zurbilak diren hemengo gizaki hauek...) Hango karrikan Miel Otxinek bizpahiru bira eman ditu txistulari eta atabalariaren soinuaren pean, eta bukatzeko frontoi erdian, denek mutil dantza magikoa egin dute aurpegiak estalita, harmonian, Miel Otxinen agindupean.”

Pentsamendu horiek jira-biran zebilzkionean buruan barna, erreka gurutzatzen duen zubian flash bat, tximistaren pareko argi-danbatekoa, sumatu du baserri baten paretaren kontra jaurtiz, eta berriro beste bat, eta beste bat, eta beste bat, eta argi danbateko bakoitzean, bere begien harridurarako, ikuskizun paranormal bat suertatzen ari zen Lantzen. Ilargi betearen argipean Lantzeko inauteriaren pertsonaia bat azaltzen zen, hartara, konpartsa guztia osatu zen arte.

Kuzko hormari itsatsia zegoen magnetismo ezkutu batek bertan pegatsita utzi balu bezala, pipa lurrean, begiak bere betzuloetatik aterata, ahoa bete hortz, ille guztiak laztuta, oilo-ipurdia jarri zitzaion larrua. Atximurka egin zion bere buruari (alkohol gehiegi agian?) ez! dardarizoa ez zen alkoholak sortua, ikuskizun harrigarriak baizik.

Argi kliska guztiak amaitu zirenean zonbiek parodiari ekin zioten, egunez egiten zuten antzezpen berbera beteaz, hain xuxen.

Kuzko baserri zahar baten ate ostean sartu eta leihatila batetik begira gelditu zen. Bat-batean, kanposantutik beste argi danbateko batzuk entzuten ziren eta arima erratu gehiago zubirantz hurbiltzen hasiak ziren.

Denek men egiten zioten Miel Otxin erraldoiari baina orain ez zuen behar txantxo dantzari bat azpian airean eraman zezan, ez, berak bakarrik egiten zuen, bera zen Lantzeko gauekoen dantzari nagusia eta haren irribarre malefikoa inoiz baino bortitzago eta zekenago erakusten zuen beste gaueko guztiak mesprextatuz.

Txantxo fantasmagorikoek arima erratuak astintzen zituzten nagusiari, erraldoiari, Miel Otxini bidea irekiz, eta Kuzko gordeta zegoen baserri aurretik igarotzean, erraldoiaren begi fosforeszenteak bereak ikusi eta zulatu zituen, bat-bateko itsumena sortuz eta ezkerreko besoan norbaiten hatz indartsu eta beroak sumatu zituen bera eraman nahian edo. Oihu mutu batek eztanda egin zion eztarrian eta ahotik atera beharrean bere burmuinean lehertu zen, izua, estuasuna eta inoiz sentitu ez zuen ikarak bere erraietan betirako itsatsita gelditu balira bezala. Konortea galdu eta lurrean ziplo erori zen.

Autobus baten galgak eta bertatik jaisten ari ziren ume aldrak esnatu zuten eguerdi aldean. Dena zen anabasa bere buruan, kolpe bat zuen kokotean, burmuinak lehertzekotan eta mingaina lakarra. Altxatu, txukundu zuen bere burua hala nola eta lastoak eta zikinkeria gaineratik kendu ostean baserritik atera eta eguzkiari uko eginez frontoirantz abiatu zen.

Han zituen bere lagunak zain, harrituta. Iritsi bezain laster galdetzeari ekin zioten: ea non egon zen, hori ez zela lan egiteko ganora, gehiegi edan ote zuen eta bere mantan zegoen umea ordezkari zezala lehenbailehen. Dena zirimola, mozkorraldi bat zirudien

bere barnean. Iturrira hurbildu, aurpegia garbitu eta bere postura abiatu zen. Hamabiak ziren, ezin zuen sinetsi hainbeste denbora igaro izana lotan eta oraindik ez zen gai izan hitz bat bera ere ahoskatzeko. Ez zen bere harriduratik ateratzen eta emeki-emeki gauean gertatutakoa, amestutakoa, nork daki? gogoratzen hasi zen, bere “top-mantari” kasu egiten zion bitartean.

Herria lepo zegoen, egun handia zen eta zoko-moko guztietatik bertaratzen hasiak ziren betiko Lantzeko beteranoak, argazkilariak, ikastoletako autobusak, ume mozorrotuak, motxiladunak, takoidunak eta halakoetan egoten den fauna bitxia.

Ostatuko leihoetatik Zaldikok jada bere zurezko ipurdia erakusten zuen, eta txantxo batzuk lastoa jaurtitzen zuten jendearen gainean lehen irribarreak sortu eta urduritasunari bidea emanaz. Handik eta hemendik baserri-atarietatik txantxoak karrikara ateratzen ziren maskarada koloretsua erakutsiz eta inuzente batzuk erratzekin astinduz. Giroa emendatzen ari zen, dudarik gabe!!

Kuzkok, bere begi beltz sakonekin dena behatuz, batzuetan pentsatu zuen alboan zituen lagunei gauean bizitakoa azaltzea, baina beraiek ere ez zuten sinetsiko kontatu nahi ziena eta agian hobe horrela, zeren gertatutakoa egia balitz, berak ez zuen berriro bakarrik gaubeilarik egingo herri sorgindu hartan.

Atera ziren arrapaladan txantxoak jauzika, jendeari iseka eta astinduak sobera banatuz, ume txikiak pixka bat beldurtuz eta aitona-amonen irribarreak bilatuz. Konpartsa magikoa Lantzeko karrikak betetzen hasia zen. Kaldereroak, ferratzaileak, aurpegi gabeko munstro beldurgarriak kirrinka, arrastaka, zarataka, daramatzate beren pertz ketsuak, jendearengan nazka eta beldurra sortuaz. Zaldiko basatiaren bila dabilta, non ote? Han karrikan beheiti doa saltoka Ziripot beldurgarri eta era

berean gaixoaren bila, ostikoka lurrera bota arte bere aurka joaz. Harrapatuko ote dute basoko zaldia ferratzeko, hezteko, menderatzeko, etxe-abere bihurtzeko? Ez da lan erraza izanen, ez alajaina, zaldi bihurria baitugu Lantzeko hau.

Eta denen gainetik ia-ia Lantzeko baserri galanten teilatu gainetik erraldoia, pago haga baten inguruan osatutako erraldoi irribarretsua bere patuaren ezjakintasunagatik agian, edo heriotzaren bezperan inoiz baino ausartago azaldu nahi duena beharbada. Denek jira eta buelta egiten dute bere inguruan, bera ere dantzan ari delarik txantxo baten bizkar gainean. Lantz osoa kontrolatzen du bere handitasunak ematen dion talaia ikusgarri horretatik.

Bitartean, Ziripot makiladun munstro potoloa hamaikagarrenean agidanez erori da lurrera zaldiko petralaren talka gupidagabearen ondorioz, eta txantxoek zutitzen laguntzen diote berriro ere.

Konpartsak bira osoa eman dio Lantzeko herri txikiari eta frontoira hurbiltzen hasia da bertan mutil-dantzari ekiteko asmoz, baina indiarren postuen aurretik igarotzean, bat-ba-tean erraldoia Kuzko indiarraren aurrean seko gelditzen da nahiz eta musikak besterik agindu, eta beste kide guztiak itzultzen dira Miel Otxin daraman txantxoarengana jakin-minez, ezohiko gelditze horren zergatia asmatu nahian. Txantxoak berak ere ez daki baina zerbaiten aginduz, Kuzkoren aurrean dantzan hasten da.

Gure indiarra ere harrituta dago eta bart gauean izandako lazadura berriro ere ezustean esnatzen da bere baitan. Bere begiek eta erraldoiarenak bat egin dute, eta panpina baten aurrean dagoela jakin arren, dantzatzeko agintzen dio. Azkenean bere gorputzak men egiten dio, eta konpartsan bat eginik, frontoiaren erdian osatzen den

zirkuluan beste dantzari bat gehiago bilakatzen da erraldoiaren begiradapean.

Kuzkoren lagunek ezin dute ikusten dutena sinetsi, Kuzko mutil-dantzan ari da sekulako prestutasun eta estiloz, betidanik ezagutuko balu bezala. Badirudi beraiek direla harriturik dauden bakarrak, beste orok naturaltasun osoz ikusten baitute ekitaldia, fitsik aditu gabe.

Dantzaldia bukatu ostean denak bazkaltzera erretiratzen dira, iluntzean berriro ere plazan ekitaldi berbera errepikatu behar dute eta, erraldoiaren erreketarekin bukatuz.

Indiarrek ere gauza bera egin dute eta beraien furgoneten ondoan jaten ari dira, mutu. Inork ez du aipatzen gertatutakoa. Halako batean amonak hitza hartzen du eta azalpenak eskatzen dizkio. Zer dela eta gelditu da erraldoia bere aurrean buruz buru? Zergatik parte hartu du dantzan? Noiztik ezagutzen zuen mutil-dantza?

Kuzko konturatu da hori dela unerik aproposena gauean gertatu... edo amestutakoa kontatzeko eta ñabardura guztiekin kontakizunari ekiten dio. Indiarrek ezin dute sinetsi berak dioena nahiz eta magiaren munduak eta espirituak beraien sinesmenetan indar berezia jarraitzen duten izaten. Orduan, amonak hasperen bat botatzen du eta makiltxo batekin lurrean marrazkiak egiten hasten da mintzo den bitartean. Denak adi-adi gelditu dira.

– Kuzkok esperientzia bat, irudipen bat izan du, arimen munduan sartu da, bera horretan saiatu gabe.

Kuzkok boterea du bere barnean, txaman bat izan daiteke berak ez jakin arren eta spirituak, herri honetako spirituak, bera erabiltzen ari dira zerbait adierazteko...

Amonak jarraitzen zuen margotzen eta une berean marrazkiak, sinboloak ezabatzen, olatuek hondartzan egiten duten bezala.

– Baina zergatik ni amona? Ez da nire gustuko esperientzia izan eta ez dut uste ezer onik ekarriko didanik.

– Ez dizu ezer onik ekarri behar derrigorrez, Kuzko; ikusteko ahalmen berezia duzu, onerako zein txarrerako, baina orain jakin behar dugu zer esan nahi dizun erraldoiaren espirituak...

Denak isilik zeuden. Beste batzuetan ere amona mintzatzen zenean gauza arraroez, ezohikoez, denak isildu, entzun eta men egiten zioten. Taldearen ama espirituala zen, nolabait esateko.

Baina zer esan behar zioten herri arrotz horretako espiritu ezezagunek beraiei, urrutitik etorritako indiarrei? Ez al zuten euskaldun hauek txamanik haiekin mintzatzeko? Galdu al zuten jada ahalmen hori? Garbi zegoen ezetz. Ardura gehiegi, gauza gehiegi zituzten Amalurrari kasu egiteko, Patxamamari kasu egiteko, berarekin hitz egiteko, nahiz eta jakin haiek oraindik Naturarekiko harremana mantentzen zutela, baina porlana gailentzen ari zitzaaien gogoak blokeatuz.

Horregatik, beharbada, Miel Otxinek aukeratu zuen bere herria, beraiek oraindik ere, bere modura Patxamama, Amalur, gurtzen zutelako, oraindik ez zutelako galdu zilborrestearen lotura hori, horregatik aukeratu zuten Kuzko, haien arteko txaman berria.

– Horregatik aukeratu zaituzte zu, seme. Begira, Lantzeko erritual hau urtero ikusten dut ene begiez eta beti ere bukatu gabea dagoela, zerbait falta zaiola

iruditzen zait –zioen amona indiarrek–. Herri hau Naturarekin oso lotua egon dela nabaritzen da, baina erritualaren katea noizbait eten egin da, pieza bat falta zaio eta horregatik espirituek ez dute atsedetik hartzen eta zuri Kuzko agertu zaizkizu gaueko inauteri horretan, irtenbide baten eske. Ez dute jarraitu nahi etengabeko parodia honetan atsedetik hartu gabe urteak joan, urteak etorri.

– Eta zer da, zure ustez, falta zaiona?

– Zer da gaur gauean, urtero erraldoiari egiten diotena?

– Ba,... epaitu, tiroa eman, sabela urratu eta sutara bota. Betikoa.

– Eta, gero zer? Horrela bukatu behar al du espiritu horren bidaiak? Pentsatu pixka bat. Pentsatu gure Patxamaman. Lurretik sortua... (eta amonak nahita sortutako eten bat utzi zuen airean).

Denek elkarri begiratzen zioten erantzunaren bila baina inori ez zitzaion bururatzen irtenbiderik.

Eta isiltasun hura urratuz, Kuzkok erantzun zuen:

– Lurretik sortua, lurrera itzultzeko. Horra hor erantzuna. Horra hor falta den katebegia. Miel Otxinen errautsek lurrera itzuli behar dute. Horrela al da amona?

– Horrela da seme, hori da falta zaiena, espiritu horiek betiko bakea berreskura dezaten. Eta herritarrek ez dakitenez, ene ustez, guk geuk lagundu beharko diegu azken erritual hori burutzen, zirkulu magikoa ixten. Gaur

gauean izanen da, denak lotara doazenean guk gure lana beteko dugu, espirituak hala eskatu digutelako, denon mesederako.

– Hala bedi!! Esan zuten denek aho batez

Eta indiarrek bazkari xumea bukatu ondoren, altxatu eta bere postuetara hurbildu ziren berriro, turistak mandeuliak bezala itzuli-mitzulika ari baitziren, hau zenbat eta beste hori zenbat? galdetuz.

Gauean izanen zen beraz.

Eta errituala errepikatu zen arratsean, eta argazki kameraren flashek inoiz baino gehiago eztanda egin zuten Miel Otxin, Ziripot, Ferratzaile, Zaldiko eta Txantxoen musuetan, jauzietan, kolpeetan, harat-honatetan...

Eta iritsi zen une magikoa eta tirokatu zuten erraldoia, sabela urratuz, bere lasto-barrunbeak sutara boteaz, eta dantzatu zuen herriak behar bezala suaren eta erraldoi gaiztoaren errautsen inguruan, behin eta berriro, antzinateko usadioak zioen bezala, etengabeko musika monotonoak eta jira-birak sortzen duen katarsiaren bila, baina maskaradun dantzariak ez zeuden oso adi.

Batak hurrengo eguneko lana zuen buruan jiraka, besteak poltsikoan konturatu gabe segapotoa utzi eta dardarizoa bere musikatxoarekin batera joka zuen, Patxik autoaren letrak nola pagatu, Jonek semeak bart emandako disgustua gogoan, Joxeanek ganaduaren azken salmentarekin galdutako diruak bueltaka tripetan...

Hori dena ikusten ari zen bere begiez Kuzko, nahi gabe, bereziki saiatu gabe, baina hain garbi sartzen zen haien buruetan ezen beldurra ematen zion. Oraingo honetan ez zegoen dantzan, begira baizik, ez baitzuen indar kontrolaezin hura berriro sumatu.

Joan dira denak, plazan azken sugarrak eta errautsak utziaz eta han darraite gure indiarrek beti bezala presarik gabe, estuasunik gabe, bizitza beraien erritmora makurtuz, irribarrea ezpainetan, argitasuna begietan, une egokiaren zain.

Unea iritsi da eta ordurako fardel guztiak jasoak dauzkate furgonetetan. Gaur ez dute Lantzen lo egingo; egitekoa egin ondoren alde egingo dute bertatik.

Jaso dituzte erraldoiaren errautsak eta zubirantz abiatu dira amona eta Kuzko, besteek urrutiagotik dena ikusten duten bitartean. Zubia zeharkatu eta gero, lurrean makurtu dira biak eta aitzur batekin zirkulu bat osatu dute. Belar batzuekin zirkulua estali eta segidan Kuzkok, plazan hartutako errautsak erdian jarri ditu eta ohiko otoitza ahopeka errezitatu du zirkulutik kanpo eskuak zerurantz luzatuz:

– Patxamamak emandakoa Patxamamarengan gelditzen da.

Zubiraino erretiratu dira biak eta une bat itxoin dute zirkuluari begira. Orduan zirkuluaren erdian argi eztanda bat suertatu da eta irudi fantasmagoriko bat, Miel Otxinena alegia, sortu da lurretik. Irribarre egin du zubiaren bestaldean dauden bi indiarrei begira eta lurraren magalera itzuli da.

Buru-makur itzuli dira amona eta Kuzko furgonetetan zain dauzkaten beste lagunengana eta poliki-poliki Lantzetik ateratzen hasi dira. Orduan gaueko isiltasunean beste eztanda bat entzun dute, bertan seko geldituz.

Ahots bat besterik ez dute entzun:

– Eskerrik asko adiskideak, esker aunitz.





MARKITOS ERRE DEZAGUN!!

XVI. mendearen erdialdean gaude, 1563. urtearen udazkenean hain zuzen, Agurain hiribilduaren inguruan, Gazeo, Zalduondo herritxoek inguratuta, La Lezeko zulo beltz, misteriotsuaren aho zutaren begiradapean. La Leze delako koba, zaharrek diotenez, akelarre-gunea izan omen zen aspaldian bere forma berezia eta erraietatik sortzen, igarotzen, den errekek betidanik inguru horri eman dion izaera magikoa zela eta.

Hortik gertu, Aizkorriren altzoan, Gipuzkoara bidean, beste aho biko koba, pasabide enblematikoa dugu, San Adriangoa alegia, “deabruaren ahoa” goitizenez bere iluntasunagatik, nondik erromatarren garaian egindako galtzadak bidea ematen baitzion Bordele eta Astorga lotzen zituen garraiobide bati. Bi leize esanguratsuen arteko inguru magikoa, gure istorio honetan Zalduondori egokitu zaiona.

Markos, Markitos, Burgoseko bere ezagunentzat, merkataria, mandazaina genuen ofizioz, txikia gorpuzkeraz, hargatik gaztelauek jarri zioten goitizena –txikia zara baina mandoak baino egoskorragoa, kar, kar, kar– esaten zioten aldizka, bere bidaietan Burgosera jaisten zenean merina arrazako artilea, olio edota ardoaren bila, gero Bilbora zein Donostiara garraiatzeko. Ez zen ongi konpontzen tratulari haiekin, eta ez zen inoiz beraiekin ardandegira joaten isekak ez entzutearren. Ahalik eta lasterren tratua itxi eta alde egiten zuen tximistaren pare.

– Nazkante hutsak dira, baina zerri bakoitzak izan ohi du bere San Martin, bai jauna!!– esaten zuen ahopeka. Lehenbailehen bukatu behar dut merkatari

handi-mandi hauekin, eta Lizarra aldera joan merkatu berriak arakatzera.

Bere ibilbidea, aroaren arabera laburtu edo luzatu egiten zuen. Neguan, Gasteiz, Agurain eta Sakanan ibiltzen zen, udan bere biltegietan metatutako ardoa-artilea-olioa hirukote magikoari etekin ederrak atereaz, elur jasek Etxegarate eta beste portuak ixten baitzituzten luzaroan. Arriskatzekotan nahiago zuen aukeran Burgos aldera jaistea mendi elurtuetan barrena ibiltzea baino.

Elurrak urtzerakoan luzatzen zituen berriro bere mugak eta noizean behin Donostiaraino ere joaten zen, eskaera edo aukera bereziren bat zegoenean, edota bidaiariren batek notizia interesgarriren bat helarazten zionean.

Txikia esan dugu zela gure Markos, baina txikia bezain betilun eta fidagaitza gehienetan, negozio zaila baitzuen esku artean. Erne ibiliz gero dirutza sortzeko aukera ematen zuen baina arriskuz betea zen era berean: bazter guztietan lapurrak, tratulari asko ere lapurren kategorian sartuko zituen, hainbat merkantziekin izandako gorabeherak zirela medio. Behin Errioxako ardogile hark saldutako hamar barriketatik zortzi ozpinduta zeuden eta ordainetan ia-ia Zegamako bezero garrantzitsu bat galdu zuen.

Halabeharrez beraz, hitz gutxikoa eta bekoz koduna genuen Markos merkataria. Pare bat biltegi zituen bere ibilbidean, mandoak gobernatzeko eta generoa biltzeko, eguratsak edota negozioak hala aginduta; horietariko bat Zalduondon bertan, herri txiki haren kanpoaldean, Larreatarren jauregi dotorearen itzalpean.

Hitzontzia ez izan arren ezinbestean bizi behar eta lanak utzitako tarte urrietan gustuko zuen Zalduondoko ardandegira hurbiltzea, berak hornitutako ardoa edan eta afari goxoren bat ahoratzeko. Gainera toki horiek ziren onenak azken berriez

jabetzeko, ez baitugu ahaztu behar, Donejakueren bidearen kostaldeko adarra, San Adrian gaindi Zalduondotik bertatik pasatzen zela eta erromesek –ugariak ez izan arren– beti zekarten berriren bat edo beste, negozioak kalkulatzeko pistak ematen zituen.

“Belarriak erne eta mingaina txuloan”, hori zen bere leloa. Pista gutxi negozioez eta esandakoak ahal dela gezurrezkoak. Ez zuen fama ona Markitosek Zalduondon, eta pentsatzekoa da normalean gaua pasatzen zuen beste hainbat herritan ere antzera gertatzen zela. Baina etxe nagusia Zalduondokoa izanik, gustukoa zuen mendi magalak hain gertu izatea. Gustukoa zuen bezala noizean behin bere ibilbidea aldatzea Gipuzkoatik itzultzerakoan, karga gutxirekin zetorrenean, San Adrianetik igaro eta gero Lezeearango ataka irabazi ondoren, aurrez aurre Urbasa ikustatzea eta Aizkorriekin batera erdian kokatutako Sakana horretan bista luzatzea, Agurain bere oinetan ikusi arte. Sentsazio polita zen, bai jauna!! Bere txikitasunean hori guztia bere mende izatea, munduko pertsonarik garrantzitsuena sentitzea, hor nonbait.

Urriaren gau hartan Zalduondoko tabernan zegoen Markos eta gizon bat sartu zen, bertako guztiak agurtuz, erromesa zirudien, haren euskara bereziak adierazten zuen bezala.

– Gau on! –bi pusketan bereiztua eta ongi ahoskatua bota zuen–.

– Baita zuri ere –erantzun zion tabernariak.

– Jakin dezakegu nor zaitugun?

Erromesen artean aski zabaldua zegoen ahoz aho, zein hainbat kantetan Zalduondoko jendea adeitsua zela bidaiariekiko eta harrera onekoa, fidatzekoak

alegia, eta horrek merezi zuela aprobeztatzea, bidaiako beldurrak eta esamesak bertako ostatu zein tabernan bota, bizilagunen jakin-min sanoa asetzeko.

- Baionatik etorria naiz. Santiagoko bidea egingen dut.
- Oso ongi mintzitzen zara euskaraz.
- Eskualduna naiz lagun! Iparraldeko anaia.
- Ta? Zer diote bideek ba? Jakin al daiteke? –esan zion tabernariak ardo txarro bat atera eta ogi puska bat jartzearekin batera.
- Barka!! Aurrena... zerbait jan behar al duzu? Ostatua behar? Gela bat badut libre, prezio onean.
- Esker aunitz! Bai, gaua hemen pasatu nahiko nuke. Akituta nago, egun luzea izan da –eta halabeharrezko irribarre bat marraztu zuen aurpegian berehala ardoa eztarrian hustu eta mahaira kopetilun begira geratu aurretik–.

Zerbait arraroa zeukan erromes horrek. Ez zuen txintik esan nahi bidaiaz, nahiz eta tabernariak zirikatu; eta etengabe mugitzen zuen gorputza azkura izango balu bezala, era berean inguruko jendea artega behatuz.

Markos bere udarako joan etorrietan gero eta maizago aditzen ari zen izurrite berri baten oihartzuna han-hemenka, bai Burgos aldean zein Donostiako portuko tabernetan. Ez dakit nongo itsasontzi italiarra tiroka lehertu zutela Marsellako portuan sartu nahian zebilenean, edota Burgos aldean hiritik gertu halako kanpaleku berezi bat eraikitzen ari zirela izurritearen susmoa zuten jendearekin, eta gaia beldurgarria izateaz gain bere negozioetarako penagarria zen, komertzioa

desbideratzen zuelako eta askotan, hiriak batik bat hustu egiten zirelako jendearen izua zela medio.

- Egia al da Donostian uda honetan itsasontzi italiar batek portuan sartu nahi eta ez diotela utzi, lagun?– bota zuen Markosek–. Barkatu Markos nauzu, merkataria, zure zerbitzurako.
- Markos iruzurgilea– entzun zen tabernako kantoi batetik, algara ozenak barreiatzen zirelarik, inguru ilunean.
- Ez dakit. Eta zergatik ez zioten sartzen utzi behar ba? Itsas-lapurra ote? Eta irribarre maltzurra berriro agertu zen balizko erromesaren ezpainetan.
- Ba izurrite beltzak jota zegoelako, lagun!

Hori esatean tabernako ahots, zarata eta marmar guztiak ezabatu ziren eta denak etorri berriari eta Markosi begira gelditu ziren. Erromesak tentsioa bere lepoan sumatu zuen, begirada guztiak iltzatuak baitzituen.

- Ez, ez dut ezer entzun ez bainaiz Donostian sartu.

Eta hori esan bezain laster berriro hazka eginez lepo estalian eta hankartean, zutitu eta eskainitako gelarantz abiatu zen. Hurrengo goizean inork ez zuen ikusi gizona eta tabernariak bakarrik esan zuen aurpegia erdi estalia zeramala nahiz eta hego haizea bueltaka zebilen goiz hartan, eta ez zuela beste gau bat gehiago gelditzeko asmorik.

Markos azeri zaharra zen eta nahiz eta gezurra izan esandakoa, konturatzen hasia zen aspaldiko partez erromes kopurua handitzen zihoala San Adriango bide aldapatsuetatik, eta inor ez zela gelditzen gau bat baino gehiago ostatu hartan, beste

garaietan bezala, Zalduondoko harrera ona dastatzeko sikiera. Zerbait arraroa gertatzen ari zen eta bai Burgoseko Santiago bidea, bai kostaldekoa aspaldiko partez puzten hasia zen, aurpegia erakusten ez zuten erromes kapusaidun gehiegirekin, gauza onerako.

Domun Santuko festa iritsi aurretik azken bidaia azkarra egin behar zuen Donostiarantz berri freskoak jasotzeko asmoz neguak portu guztiak itxi aurretik.

Zaldi eta txoriek lurrikara txikiena suertatu aurretik, antzeman eta ihesari ematen dioten bezala, Markitos azeri zaharra, horrela zebilen uda partetik hona, usainean...

Sakanan eta Burgosen egindako azken erosketa eta trukeekin bere biltegiak bete ondoren Donostiarako azken bidaia prestatzen hasia zen. Hori aurretik Zalduondoko aitona zaharrena biltegiara gonbidatu zuen eta biak bakarrik bazkaldu zuten jaki eta ardorik goxoena dastatuz, elkarrizketa berezi bati hasiera emateko. Adrian aitona ia hirurogei urte beteak zituen, Zalduondoko zaharrena zen. *Kaparra* goitizenez, txikitatik nahiz eta ezbehar ugari izan beti, katuak bezala tente erortzen zen, bizitzari kementsu atxikituz, hala nola kaparrak haragiari. Norbait izatekotan hark izan behar zuen Markosek behar zuen informazioaren atal bat eman ziezaiokeen bakarrenetarikoa.

- Adrian, goxoa egon al da saiheskia? Eta ardoa?
- Bai, alafede Markitos. Baina zer gertatzen zaizu? Hego haizeak jota zabilta? Hau ez da zure ohiko estiloa. Zer jakin nahi duzu, alproja horrek?
- Ondo baino hobeto ezagutzen nauzu Adrian eta ez naiz luzaroan ibiliko lardaskan, harira joango naiz. Izkribuek eta kantek diote duela 200 urte gutxi

gorabehera izurrite latza egon zela lur hauetan, izurrite beltza, alegia. Zuk horren berririk baduzu?

Adrianen kopeta zimurra, zimur gehiago onartzen ez zuen larru hura, are gehiago zimurtu zen eta mahai gainean zuen ardoa zintzurretik behera eraman zuen, bat-batean jarri zitzaion marranta konpondu nahian. Begira gelditu zitzaion Markosi une batez eta arnasa sakon hartuaz esan zion:

– Zergatik galdetzen didazu hori Markos? Zuk zerbait badakizu eta jakin nahiko nuke zer den, neure erantzuna eman aurretik.

– Begira Adrian, hau ez da komeni zabaltzea oraindik baina bihar Donostiara egingo dudan bidaiari ziurtatuko ditut nire susmo beldurgarriak. Nire ustez izurritea bai Burgosetik eta bai Kostaldetik zabaltzen hasia da eta berri freskoak jaso nahi ditut portuan, hori izaten baita zorigaizto zein zorioneko berri guztien lehen habia.

Adrianek, ia hirurogei urte zituzten begi sakon haiekin Markosenak behatu zituen ea brometan zebilen aztertzeko. Ez zen txantxa, ez.

– Markos, nik dakidana zera da: nire aitonak ongi gordeta zuen pasadizo bat behin eta berriro bere aitonak berari eta hark guri kontatutakoa, txikitan ileak tente jartzen dituen horietakoa eta espero dut sekula santan lur hauetan berriro gertatuko ez dena.

– Zeintzuk ziren sintomak eta nola zabaltzen zen? Hori da jakin nahi dudana bakarrik. Ba al daukazu erantzunik?

– Motzean esango dizut: sukar handia, buruko min latzak, orban beltzak

nonahi, begi gorri eta puztuak, hats kirastua, eztul bortitza, eta bukaeran zornazorroak eta ultzerak. Eta amaitzeko Herio. Garden mintzatu naiz?

– Eta nola zabaltzen zen? Ba al dakizu ezer?

Adrian nekatzen hasia zen, ezin zuen luzaroan eserita egon, oheratu beharra zeukan sarritan; baina, ez ohiko galdera horien aurrean erne eta arretatsu erantzun zion Markosi, bere bizipen guztien altxorraren azken bazterrean gordeta zeuzkanak aipatzeak berak ikara sortzen zion arren: izurrite beltza, Herioren armarik boteretsu eta latzena, aspaldiko partez bere mundua bisitatu ez zuena eta orain agian, Markosen begietan antzematen zuen galdeketa hartan berpizteko zorian zegoena.

– Batzuek diote arratoi beltzak direla Heriok bidaltzen dituen lehen mezulariak, zigorra badatorrenaren adierazle. Besteek kutsatutakoaren hats bera; ez da gauza samurra asmatzea. Nik bakarrik dakit nire aurrekoek kontatutako istorio hartan zera ziotela: inguru hauetako hainbat jende izurritearen erdian errito zaharrei heldu eta La Lezera bueltatu zela akelarreak burutu eta deabrua gurtzera. Gauza da, herri osoak desagertu zirela eta ezerezetik eta beldurrak jota hasi behar izan zutela bizirik gelditu zirenak.

Eta agure zaharrak negarrari ekin zion, zerbait beldurgarria aspaldiko partez bere baitan zoritxarrez berpiztu balitz bezala. Markos konturatu zen ongi lurperatuta zeukan amesgaizto bat ernarazi zela Adrian xaharraren bihotzean eta erruki eman zion. Ez zuen merezi halakorik.

– Adrian, barkaidazu antzinako mamuak zure barnean berpizteagatik, baina jakin behar dut zeren aurrean gauden, agian etorri badatorrelako. Eta azken mesedea eskatuko nizuke: ezazu elkarrizketa honetaz deus esan inori, ez ni

bueltatzen naizen arte behintzat, ados?

– Ondo da Markos, baina zuk esaten duzun bezala baldin badator gureak egin du, ziur egon. Jainkoak bedeinka gaitzala. Bere makulua hartuta alde egin zuen aitonak biltegitik eta Markos bidaiaren azken xehetasunak prestatzen hasi zen.

Hurrengo egunean goiz abiatuko zen San Adrianetik Donostiarantz, Tolosan gaindi.

Zama gutxi zeraman aldean, diru batzuk eta janaria besterik ez asto baten bi otarretan. Laban bat ezkutuan eta aizkora zorrotz bat astoaren lokarriei lotuta. Abila zen Markos bi arma horiekin, inork ezustean harrapatuz gero bertan seko uzteko modukoa. Egunsentia baino lehen gustatzen zitzaion abiatzea badaezpada inork ez zezan ikus zenbat zamari zeramatzan, eta gero eta laburragoak ziren egunei aurre hartzeko asmoz. Zegaman bazuen amorante bat, baina honetan presaka zebilen eta agian itzultzean izan beharko zuen.

Zalduondotik hasi eta Lezearango atakaraino bide malkartsua eta gogorra zen baina bera oraindik sasoian zegoen eta ongi menderatzen zuen bidaiaren zatirik neketsuena. Ataka hartara iritsi bezain laster bere janzkera aldatu ohi zuen, otarretan gordeta zeraman artzain arropa jantziatz. Horrela balizko bidelapurrak, mendian barna zebilen artzain bat zelakoan, despistatzen saiatuko zen. San Adriango kobazulora iritsi aurretik, halakoetan beti antzezpen bera egiten zuen: bidea ongi ikasia zuen astoa aurretik bidali eta bera atzetik arlote planta eginez, builaka, segika, asto apetatsuak ihes egin izan balio bezala. Oraingo honetan ondo atera zela zirudien, inor ez baitzegoen gordeta zuloan, bizkarretik salto egin eta lepoan labana jartzeko prest.

Egunak joan, egunak etorri, iritsi zen Donostiara eta astoa eta artzain jantziak ezagun

bati utzita kaian zegoen taberna batera abiatu zen. Donostia, gero eta gehiago, garai bateko merkataritzarako herri prestua izateari utzi eta soldaduz betetzen hasia zen; gero eta arma gehiago, eta gotorleku indartsuago bihurtzeraino, frantses zein ingeles armaden kontrako lehen gotorlekua bilakatuz. Baina, hala ere, erne ibiliz gero beti zegoen zer entzun, zer atera.

Tabernan Zaragoza aldetik berriki etorritako soldadu batzuk zeuden edaten oraindik ere dirudienez beraien destinoa zein izan zitekeen garbi jakin gabe.

- Donostiara edo Pasaiara, nora kristo bidaliko gaituzte?
- Pasaia itsusiagoa omen baina merkeagoa da parrandak egiteko.
- Gutxienez Zaragozako zulo beltz horretatik ihes egiterik izan dugu, ea bueltatzen garenerako zuloa garbirik dagoen!
- Zulo horretan gure familiak daude, ergel halakoa! Eta haiek zer? Zer egingo dute gaixorik jartzen badira?
- Zuk badakizu horren aurrean (eta horren hitza baxuago ahoskatu zuen) ez dagoela ezer egiterik. Probatu nahi baldin baduzu buelta zaitetz bertara! Ez dago irtenbiderik motel! Horrek ez du gaixorik uzten, gorpuak besterik ez! – eta beste basokada bat hartu zuen–.

Markos diskrezio osoz haiengana hurbildu eta ezer gutxi entzun balu bezala, tartean sartu eta gonbidatu egin zituen:

- Ongi etorri lagunak!! Zaragozakoak zaretela entzun dizuet nahi gabe! Herri polita hura eta herri polita baita Donostia ere, ez duzue uste? Topa dezagun

gure herriengatik. Hurrengoia neure kontura!

Eta ardoak mingainak askatzen dituen neurrian, joan ziren hiru soldaduak beren beldurrak, minak, desioak eta aipa ezina zen delako horren berri ematen. Dagoeneko Herio zamalkatzen hasia zen Zaragozako lurretan eta jende gaztea salbatu nahian edo, armada beste toki batzuetara bidaltzen hasia zen gizajo hauek. Aski zen hori jakitea Markosek hurrengo egunean berriro ere bueltako bideari ekiteko, Zalduondoko herritarrak abisatzeko asmoz. Halaxe izan zen eta izurritearen mamua dantzan zuelarik bere buruan ez zen gelditu ezta Zegamako amorantearen etxean ere, herrira iritsi nahi baitzuen lehenbailehen.

Presa beti lagun exkaxa izan da denetarako, ohiko sosegua eta oreka askotan lausotu eta hausten duelako, eta halaxe, beldurra hezurretan eta bere negozioak lehenengo eta herritarrak gero babestu nahian sartu zen Markos San Adriango tunelean barna, ohikoa zuen antzezpena burutu gabe, eta zulo beltza igarotzerako bazituen bi alproja aurrean itxaroten.

– Egunon deigula Jaungoikoak, jauna!!

Markos beranduegi konturatu zen hanka sartu izanaz eta artzain arlotearen paperari ekitea pentsatu bazuen, nahiago izan zuen egoera aztertu eta gero gerokoak.

– Baita zuei ere. Nolatan ba bide honetan?

– Debekatua al dago ba? –arrapostu egin zion txikienakgu bezalako alproja, baztertuak ez al dugu ba eskubiderik bideetan ibiltzeko, jaun dotorea?

– Nola ez ba! Bideak denonak dira, horretarako daude!! Zerbait nahi didazue esan? Presarekin nabil. –eta hori esatean aizkora zegoen atzeko aldera

hurbildu zen poliki—. Une berean bidelapur handiena bere eskuin aldetik hasi zen mugitzen bestea hurbiltzen zitzaion artean.

– Ba bai, jakin nahiko genuke zer eman ahal diguzun egun zoriontsu bat pasatzeko, Zegaurako kartzelan egurra besterik ez dugu jaso eta orain, horren truke, zerbait merezi dugulakoan gaude. Zure arropak eta zure astoa adibidez.

Hori esan zuenerako Markos aizkora jaurti eta aurrez aurre zetorkion alprojaren harridurarako, bihotzaren parean zulatu zuen. Amorruek jota, eskuinaldean zeukan erraldoiak, gainera salto egin eta lurrera bota zuen zintzurra estutzen zion bitartean. Markos erraldoiaren eskuak aldentzen saiatu zen baina alferrik, indartsuegia zen. Bertan hiltzeko zorian zegoenean, lapurra eztulka hasi eta bilisa atera zitzaion ahotik bere aurpegia ziprztinduz. Istant horretan eskuak askatu zituen dardarizo ikaragarriaren poderioz eta Markosek ezkutuan zeraman labana atera eta zulatu egin zuen behin eta berriro. Gizona bere gainera erori eta Markosen ustez Donostian utzia zuen Herioren lehen abisua bere aurpegi aurrean ikusi zuen krudeltasun osoz. Aurpegia orban beltzez josita zuen!!

Ahal izan zuen bezala gainetik kendu eta alde batera bota zen arnasa berreskuratu nahian. Erdi zorabiaturik zegoen erasoagatik eta aurpegian zerbait likitsa sumatu zuen. Lapurraren bilisa zen. Nazkak jota handik gertu pasatzen zen errekaostan sartu zuen burua behin eta berriro eskuak, aurpegia, konpultsiboki garbituz. Aizkora eta labanarekin gauza bera egin eta bi gorpuak makila batekin bide bazterrera zokoratu zituen. Ez zuen pistarik utzi nahi han bertan, badaezpada. Dena den, azken gauza bat egin behar zuen nahiz eta gogoak kontrakoa eskatu. Makila bat erabiliz arropak altxatu eta... zornazorroak eta ultzerak ikusi zituen. Izurriteak jota zeuden eta haietako batek bi lisa bota zion!!! Garrasi ozen bat bota zuen San Adrianerantz eta

aurrerantzean, izua bere baitan likatuta gelditu zen. Atakara iristean sakana begiztatu zuen baina zegoeneko ez zen munduko gizonik indartsuena sentitzen, baizik eta patuak, zoritxarrak, jotako gizajo bat, han San Adrianen hil zituen haien parekoa.

Egia zen batzuetan zorionez, bestetan zoritxarrez, Heriok denak berdintzen gaituela, ez dela inor libratzen bere besarkadatik, baina... heriotza hau, izurrite hau, zergatik???

– Zergatik ni????? Zergatik ni??? –oihukatzen zuen behin eta berriro Zalduondora begira.

Luzaro egon zen talaia hartan eserita pentsakor, zer egin jakin gabe, nora jo, nori esan, dena zen beltza bere gogoan. Baina agian ez zegoen kutsatuta, lapur haiek urrutiegi zeuden Donostiatik, euskaraz mintzo ziren, beraz ez ziren Zaragozakoak... Bai baina eta zornazorroak?, Eta orbanak???

Burutazio horiek guztiak buruan dantzan zebilzkiola, Zalduondora zeraman aldapa jaisten hasi zen. Inor gutxik erreparatu zion etorri berriak egindako ez ohiko bideari biltegira sartu zenean, Markosek diskrezioa bilatu nahi baitzuen bere burua argitzeko. Zelatari bakar bat zegoen adi 1563ko azaroaren bukaerako egun hartan bere hirurogeita bat urte bete berriek ematen zioten patxadari eutsiz eta jakin-minez borborka, eta Markos ez bazitzaion hurbiltzen, bera joango zitzaion bila aurki.

Bere bidaietan egiten zituen ohiko gauzak errepikatu eta ardandegira joan zen hurrengo iluntzean, planta egitera. Alde batetik ez zuen izua barreiatu nahi Donostian entzun eta San Adrianen gertatutakoagatik, baina bestetik herritarrek zerbait jakin behar zutela uste zuen. Dena den, berari gertatutakoari buruz, txintik

ere ez!

Sartu bezain laster, su bazter txokoan aurkitu zuen Adrianen begirada zaharra eta berarengana gerturatu zen.

– Gabon Adrian. Zer dugu? Aurrena zorionak zure urtebetetzea dela eta. Inork gutxi lortu du herri honetan eta inguruetan zuk bezainbeste irautea.

– Eskerrik asko Markos, baina nire kandelari su gutxi gelditzen zaio. Edozein haizek itzal dezake noiznahi. Bizitzen ari naizen egunak oparitzat hartzen ditut, besterik ez. Ta? Zer kontatzen dute Donostia horretan? Berririk bai?

– Begira Adrian, nire susmoak baieztatu ditut eta portuko taberna batean Zaragozatik etorritako soldadu gazte batzuei entzun nien izurritea indarrean dagoela lur haietan. Nork daki zenbat denbora pasako den hona iristeko.

Zaharrak etengabe begiratzen zion eta ohiko uzkurtasuna baino zerbait gehiago sumatzen zuen Markosen begietan, ez zion bere begirada nekatuari eusten, elkarrizketa hartan egin zuen bezala, ohi bezala.

– Beraz... gertu daukagu, ezta?

– Uste baino gertuago –ihardetsi zion Markosek–.

– Ba jendeari esatea hoberena, ez duzu uste? Galderari erantzun behar zionean, eztul bortitzari ekin zion Markosek, etenik gabe, eta bere onera etorri zenerako begi gorri hanpatuak zituen.

– Ondo zaude? Bai estualdi latza zurea!

- Ez da ezer! Bidean hoztu egin nintzen eta negua gainean dugu, badakizu!!
- Tira, tira, ba, zaindu zeure burua Markos. Dena den jendeari esatearena, nola egingo duzu?
- Ba, nire ustez onena hemen tabernan bi egun barru elkartzea izango da. Nik entzundakoa botako dut eta gero bakoitzak egin dezala ahal duena.

Zabaldu zen mezua Zalduondon zein inguruetan eta herritarrek denetik esan zuten: hori aspaldiko kontua zela eta ez zela berriro gertatuko, alde egin beharra zegoela Agurainera badaezpada, erromesak ez zirela onartu behar ez bazuten gorputza erakusten eta galdeketak egin behar zitzaizkiela nahitaez, Markos dirugilea zela eta zerbait izango zuela esku artean, eta ea zergatik berak bakarrik esaten zituen halako gauzak... eta abar.

Egia esan, batzar haren ondoren Markosen sinesgarritasuna eta ospea are gehiago kaskartu ziren eta jende gutxik agurtzen zuen. Inori ez zaio norberaren soroetan bele beltzen etorreraren berri entzutea gustatzen eta hori dela eta, Markosenganako mesfidantzak handitu egin ziren.

Negu hura bereziki latza eta gogorra izan zen eta Markos pozik zegoen ez baitzuen sumatzen ez tul latzaz gain ezer berezirik eta izua eta beldurra moteltzen joan ziren bere baitan. Jarraitu zuen bere komertzio bide motzak burutzen neguan sakanan zehar, Zalduondotik kanpo, baina dagoeneko beste goitizen baten jabe zen inguruetan: “Bele”. Eta Burgoseko merkatariek jarritakoak baino min gehiago egiten zion bere kideenak.

Belea bera? Abisua pasatzeagatik? Gertatzen ari zenaren berri emateagatik? Ba

belea batzutan erroi bihurtzen da eta beldurgarriagoa bilaka daiteke, esan zuen ahopeka, bere mandoei tiraka, Zalduondoko biltegian sartzen zen une berean.

– Beleak, segidan putreak dakartza! Zuek bai putre galantak –zioen Markosek.

Izurrite Beltza, beroa nahiago bere lana egiteko eta dirudienez neguan lotan egon zen, baina udaberria iritsi bezain laster hasi zen kolpatzen sakana. Gaur kasu bi Gazeon, beste hamar Agurainen, beste bost Zalduondon... izua hasi zen bere bidea jorratzen, jendearen ezikusiarenaz trufatuz.

Markos gero eta gutxiago ateratzen zen bere etxetik, Herio bere gorputzean ernaldu baitzen udaberria naturan lehertzen den bezala eta sintoma guztiak zituen: zornazorroak nonahi, mantxak gero eta ageriago eta sukarra eta eztula bortitzago une batetik bestera. Berak ez zekiena zera zen, herritarrek erruduntzat jotzen zutela, berak ekarri baitzuen madarikazioaren lehen berria Zalduondora eta mendeku bila ari zirela, izurritearen kontra zer egin jakin ez, baina norbaitek ordaindu behar zuela egunetik egunera Herio segalariak mozten zuen bizitza andana hura. Berak, Markos, Markitos, *Belea*, izan behar zuen eskaini beharrekoa, ea horrela asetzen zen Herio aseeginaren txikizio hura.

Herritar koadrila bat ezustean sartu zen bere etxean plazara eramateko asmoz.

– Gurekin etorri behar duzu *Bele* zahar hori. Zu zara izurritea ekarri duena.

– Zuekin plazara? Zertara? Ezjakin malapartatuak! Nik abisua eman eta orain erruduna naiz? Zuen lurra zulatzen eta ozta-ozta hazienda mantentzen ez dakizuen kankailu galantak zarete zuek. Probak mutur aurretik pasatu arren ikusten ez dakizuen ezjakin galantak!! Hori da zuen ordaina abisua

pasatzeagatik?

– Abisua ez! Mehatxua, madarikazioa, hori da zuk ekarri duzuna eta horregatik epaitu nahi zaitugu.

– Ni epaitu? Ezta pentsatu ere!! Zer ote naiz ba zuen ustez, aztia? Denon artean erruduntzat jo eta sutara bota nahi duzuen bele beltza? Ezzzzz, ni ez noa zuekin eta norbait ausartzen bada etor bedi neure bila eta eskua emango diot: Kar, kar, kar...

Eta algara zoroari ekin zion Markitosek, tarteka ez tul zoroak biriak lehertzen zizkion bitartean, eta erdi erotuta, sukarretan blai, behin eta berriro esaldi bera errepikatuz:

– Etor bedi eta eskua emango diot.....Bai! etor zaitetze.

Eta bere sukarretan alkondara urratu eta gorputza erakutsi zien. Herritarrek atzera egin zuten, beldurtuta, Markitosen gorputza ikusita. Dena orbanez eta zornazorroz zein ultzeraz beterik zegoen eta beraiengana hurbiltzen hasi zen. “Belea erroi bihurtu da, belea erroi bihurtu da”, errepikatuz etengabe...

Hura ikustean denak korrika atera eta atea itxi zuten kanpotik. Erdi aztoratuta zeuden eta ausartenak, eroenak, sua piztu eta ozenki oihukatu zuen: aztiak eta izurritea sutara, aztiak eta izurritea sutara, Markitos sutara, Markitos erre dezagun!!... Eta eromen kolektibo hartan, eta Herioren aurpegi latzena Markitosen gorputzean ikusita, antzinako erritoak berpiztuz eta beldurrari ihesi egin nahiaz, tortxak jaurti zituzten Markitosen etxearen aurka, haren oihuak sutzarraren barnean aditzen ziren bitartean. Aurki bere etxeak suzi erraldoi bat zirudien eta batzuek diote bele handi bat, erroi bat, atera zela hegan Agurainerantz.

1564ko uda horretan, abuztuaren lehen egunean, Agurain izurriteak jota zegoen eta ehorzketak San Juan eta Santa Marian metatzearen poderioz eta barneari zerion kiratsa zela eta, elizetako atek hormekin itxi behar izan zituzten. Egun horretan hiribilduak sua hartu eta erabat erraustuta gelditu zen. Kanta zaharrek diote hainbat gaixok sukarrak jota zeudenean behin eta berriro lelo bera errepikatzen zutela: belea, erroi... belea, erroi...belea, erroi.

Juan Perez de Lazarraga Aguraindar idazle nobleak (1550-1605) bere poemetan Aguraingo erreketari buruzko pasarte hauek idazten ditu, beste askoren artean.

Abuztu ilak

egun bat kunpli zelarik

oita jakizu

su ori utza fortizik

Salbaterragaz

andiro enojadurik

portaleetan

komienzua arturik

oita erre dau

Jandoneanez kalterik....

....zeren ez dago

nork sokorridu jenterik

zerren eozen

izurriteaz urtenik

ifini daue

oita asko penarik

komarkaetan

ara balloa gizonik...





ATORRAK

Eta zin dagit, gaur hemen, Gades deitzen den herri honetatik ateratzen garen itsasontzi feniziar guztien izenean, ez dugula gure ibilbidearen berri emango eta sekretupean mantenduko dudala, heriotza zigorpean. Nik, Himilkon buruzagiak, horrela beteko dut eta betearaziko dut.

Eta hau esanez urrats bat aitzinatu zen, berari begira zegoen sazerdote nagusiari men eginez.

Halako bidaia garrantzitsuak eskaintza bat behar zuen, Baal jainko boteretsuak ibilbide hori babes zezan eta itzulera ziurta zedin.

Bi gerlarik ume bat zekarten hiriaren muinoan zegoen harrizko aldarera. Izua, ezjakintasuna, bere begietan islatzen zen aldarean biluzik jarrita, bere garrasi ozenak eten zirenean sazerdote ahaltsu, gupidagabeak, laban sakratuaz eztarria moztu ondoren. Odolak borborka ihes egin zuen bere lepotik eta harri zeremoniala busti ondoren tantaka lurrera erori zen.

– Baal jainkoa gustura gelditu da ume honen garrasiak entzuterakoan. Itsasora lagunok, bidaia ona eta emankorra izan dezazuela! –esan zuen ozenki sazerdoteak, esku batean laban odoltsua altxatzen zuelarik Baal jainkoaren omenez.

Gadesen portutik egun bat berantago itsasontzi eskudra bat atera zen, merkatari

eta gerlariz osatua. *Gauloipor* deituriko zamaontziak handiak ziren, 25 metro luze eta 7 zabalekoak. Branka zaldi-buru batek apaintzen zuen eta alboetan bi begi erraldoi, itsasontziak bidea igarri eta etsaiengan izua zabal zezaten. Popatik gertu zubia, soto, sukalde eta babeserako eraikia eta erdi-erdian masta nagusia oihalarekin.

Merkatariak babestuko zituzten guda-itsasontziak arinagoak, luzeagoak, arraunlari eta gerlariz josita zeuden. Brankan, brontzeko ontzi-muturra, etsaiaren kroskoa zulatzeke prest. Hiru zamaontzi eta sei gerlaontzi denetara.

– Erne lagunok! Bidaia berri honetatik gure hiri eta hiritarrentzat bide eta altxor berriak ekarri behar ditugu fenizioen ospea are handiagoa izan dadin, orain eta gero.

– Hala bedi Himilkon! Betirako Himilkon!! –oihukatu zuten fenizio guztiek.

Eta eskuadra osoa atera zen Gadesetik, zamaontzi bakoitza bi gerlaontziz inguratua zihoalarik, bata aurrean eta bestea atzean. Haizea alde zuten eta aprobetxatu beharra zegoen. Iberiar penintsulako kostaldeari jarraiki, gaur egungo Portugaleri alegia, aurreko beste espedizio batzuetan egin bezala, tarteka beraien hainbat kolonietan gelditu, berriak jaso, hornitu eta aurrera eginez, ekin zioten bidaiari.

Dena bare zegoen bai itsaso zein kolonietan eta inongo iskanbilarik ez zuten antzeman lehen zati horretan, kostaldetik zein itsasotik, halako eskuadra indartsu bat ikusita inor ez baitzen ausartuko aurre egitera.

Himilkon gerla-ontzi boteretsuenean zihoan, jainkoak alde zituela sumatuz, Euritemenes bere laguna hurbildu zitzaionean:

– Himilkon, jauna, dena ondo doa? Gaur ilargi betea dugu eta dena gure alde

dagoenaren sentsazioak betetzen nau. Bidaia hau emankorra izango delakoan nago.

– Bai, Euritemenes lagun handia, bidaia asko egin ditugu elkarrekin eta gertatuak gertatu arren beti onik itzuli gara Gadesera, geure herrira, eta orain ere hala izatea espero dut.

– Dena den, zerbait gordeta duzu bidaia honetan. Jakin dezaket norantz goazen? Itsasontzi gehiegi daramatzagu leku bakar batera joateko. Noiz bananduko da eskuadra?

– Azkarra zara, inoiz ez dizut ziririk sartu ahal izan. Bai halaxe da. Casiterides¹ deituriko lurretara joango da eskuadraren zati handiena, kostaldeak ekialderantz egiten duenean, gu eta beste bi itsasontziak bide eta komertzio berrien bila goazen bitartean. Horra hor dakidan guztia lagun.

Iparralderantz etenik gabe zihoan kostalde hark halako batean ekialdera jotzeko imintzioa egin zuen itsaso gero eta bortitzago baten altzoan, eta une horretan Himilkonek bere bi gerlaontzi eta zamaontziarekin kostaldeko bideari ekin zion, bide ezezagun, eta hango haize bortitz zein olatu erasokorrak ikusita, arriskutsuari jarraiki.

Nekeza zen itsaso hartan aurrera egitea baina Baal jainkoari egindako eskaintzari esker bere babes jasoko zutelakoan zeuden nahiz eta aspalditik berritu ez eta haren beldur izan.

Itsasoan barna harrotasunez sartzen zen lurmutur erraldoia antzeman zuten, kaioz beteriko uharte batek brankatik doi-doi bere profila erakusten zuen une berean, eta

¹ Gaur egungo Britainia Handia.

derrepente, itsaso apetatsu eta bortitz hura, beste itsasontziak agurtu zuteneko unetik ia bakean utzi ez zituena, beltza baino beltzagoa jartzen ari zen beraien aurrean, ordura arte inoiz ikusi ez zuten hodeiez josiriko barren beltza erakutsiz. Ogoño lurmuturra desagertzen ari zen amen batean eta erabaki bat hartu beharra zegoen enbata baitzetorkien gainera tximistaren pare.

Uhartetik kostalderantz ibai baten bokalea antzemateko beta eman zien ozta-ozta, lehen olatu erraldoiak hiru itsasontziak bere tripetan harrapatu zituen une berean.

– Ababorrera!!! –oihukatu zuen Himilkonen ontziko pilotuak, urak zubia bortizki garbitzen zuen bitartean.

Beste biak maniobra berdina egiten saiatu ziren enbataren erdian murgilduta zeudenean. Arraunlari esklaboek inoiz baino indartsuago eragin zioten arraunei, bere bizitza jokoan zegoela nabarmena baitzen. Alferrik ordea, olatu erraldoiek kostaldera bultzatu eta halako batean lurraren zartada ontziaren kroskoan sumatu baitzuten. Baal jainko laguna deabru bihurtu zen ur arrotz haietan eta beraien babeslekua zen ohiko itsasotik kanpo jaurti zituen, lur ezezagunen zulo beltzera, gupidarik gabe.

Ez zen giro enbata ostean, ingurune hartan. Gerlaontzi bat eta zamaontzia txikiarraio zeuden harkaitzetan, eta bestea, nagusiena, hondartza batean trabes sartuta bere luzeraren erdiraino. Panorama penagarria hor nonbait Himilkonek begi-bistan zuena.

– Tira! Goazen beste ontzietako lagunen bila, gure beharrean egongo dira eta.

– Euritemenes! prestatu talde armatu bat eta goazen azkar harantz. Pilotua ardura dadila gure ontziaren egoera aztertzen eta bueltan hitz egingo dugu. Beste guztiek kanpaleku bat presta dezatela hondartza inguruan eta su

erraldoi bat piztu gaua hurbiltzen ari baita eta agian norbaitek horrela gidatzerik izango du, galduta badabil. Arin! Goazen agudo!– eta bere armadura ondo tenkatu eta armaz eta sokaz hornitu ondoren oihuka ari zirenlagunengana abiatu ziren.

Egoera tamalgarria izan zen feniziarrentzat eta beraien bi ontziak ia ezerezean gelditu ziren. Gizon gehienak itsasoak eraman zituen eta harkaitzetan, hautsita, anabasa ikaragarrian, ez hanka eta ez buru ontzien hondakinak.

– Ez, horrek ez du axola! –errepikatzen zuen behin eta berriro Himilkonek–. Ontziek ez dute axola!! Neure erruagatik ia espedizio osoa arriskuan jarri dut Baal jainkoari eskaintza berririk ez egiteagatik. Baina nola egingo nion ba, Itsaso zakar eta lainotsu honek ez badit kostaldea gaur arte ikusten utzi!! Ez dut sekula halakorik ikusi. Itsaso zital madarikatua!! Madarikatzen zaitut zu eta zure olatuek bustitzen duten lur hau!!–, eta horrela jarraitzen zuen enbata hark egindako txikizioa ikusten zuen bakoitzean.

– Jauna, 40 gizon denetara, horietarik 14 esklabo 5 merkatari eta besteak gerlariak gu barne.

– Sazerdoterik ez?– galdetu zuen buruzagiak.

– Ez jauna. Denak hil dira.

Himilkonek eten bat egin zuen bizirik zeuden guztien aurrean zera esanez:

– Gaizki kontatu duzu Euritemenes, ez dira 14 esklabo 13 baizik, zeren oraintxe bertan egin behar baitiogu eskaintza berri bat Baal jainkoari haren amorrua guregana berriro iraul ez dadin.

Eta izua zabaldu zen esklaboen begietan, jakin baitzekiten ez zutela inongo baliorik feniziarrentzat eta kasu honetan ez zuten hartuko ohi bezala ahulena, indartsuena, gazteena baizik, Baal jainko krudelaren odol gosea asetzeko.

Beraien errituala betetzen zuten bitartean, sastraka artean begi batzuk zelatan zeuzkaten, txintik atera gabe, harrituta ikusten ari zirengatik, ulertu ezinik, hondartza hartan –egungo Mundakako hondartza hartan– gertatzen ari zen guztiarekin. Berehala gaua enbor-hotsez bete zen, hots errepikakor, neurtu, lehorrak, ekaineko solstizioan ia Mundakako inguru guztia betetzen zuten hots magikoez.

Feniziarrek Baalekiko erritual odoltsua bete ondoren, gaua hodeiez hustu eta izarrez betetzen ari zela konturatu ziren, hain justu enbor hots haiek isiltzean, eta ibaiaren bestaldian, suak han-hemenka barreiatuak ageri ziren, zein baino zein handiago. Orduan, bat-batean, izar iheskorren antzera garrasi luze bat, irrintzi bat, entzun zuten eta feniziarren bihotzak zimurtu egin ziren une batez.

Hurrengo goizean Mundakako hondartza hartan eraiki zuten behin behineko kanpalekua, gerlariz inguratuta zegoen. Feniziar zaindariak konturatu orduko gertatu zen, instant batean, erreakzionatzeko betarik gabe. Haietariko batek adar bat hurbildu zuen ahora eta burua altxatuz soinu ozen bat jaurtiki zuen zerurantz, ibaiadar guztiak oihartzun egin zuelarik.

Himilkon berehala altxatu eta hondartzak mendiarekin egiten zuen mugarantz abiatuz, inguratuta zeuzkaten gudarien begien xerkan aritu zen buruzagiaren bila. Feniziarren artetik urrats bat aurreratu eta lehena jarri zen, bere merkataritza trebeenari deitzen zion bitartean. Hark biribilkatutako oihal eta kutxa batzuk lurrean

jarri eta zuhurtasunez zabaldu zituen. Feniziarrek bere bidaietan, tratuetarako eramaten ohi zituzten erakusgaiak ziren: anfora batzuk olio eta ardoarekin, feniziarrei izena eman zien molusku batez tindatutako oihal dotoreak, lurrin potoak, harribitxiak, burdina, eztainua, zilarra eta koloretako marmolak.

Hori egin ondoren, merkatariak atzera egin eta Himilkonek besoak zabalduz, adeitasunezko keinu batez eskaintza egin zien bisitariari, lur horretako gudariei.

– Bisitariak! Ni Himilkon feniziarra nauzue eta gure Jainko Baalen haserreak ekarri gaitu zuen lur hauetara, gure itsasontziak hondatu eta jendea heriotzara eramanez. Halabeharrez gaude hemen baina gure izatea merkataritzan datza, ez dugu besterik nahi, elkarrenganako mesedegarria izan daitekeena besterik ez dugu bilatzen. Zuek hala nahi baduzue elkar ezagutu, gure itsasontzia konpondu eta alde egingo dugu –eta hori esanez atzera egin zuen–.

Tentsioa antzematen zen euskaldunen artean, jakin baitzekiten gauean haietariko bat hil eta odolustu egin zutela garrasien artean, harkaitz baten gainean. Inork ez zuen ezer esaten eta bi aldeetako gerlarien eskuek geroz eta gogorrago heltzen zioten bere ezpata-buru eta brokel zein arkuei, zer egin jakin gabe. Orduan euskaldunen artetik bat hondartzara jaitsi zen bere gerlariak arkuak tenkatzen zituzten bitartean... Eskainitako oihalak arakatu, burua altxatu eta esan zuen:

– Ni Xemein nauzue, euskaldun hauen buruzagia eta hau gure amalurra da, Urdaibai du izena eta eskertzen dizuegu zuen eskaintza. Nabarmena da atzoko enbatak ekarri zaituztela zuen gogoaren kontra seguruenez, edota patuak bidalita, gure hondartzetara. Boteretsua izango da zuen herria halako ontziekin itsaso beltzean sartzeko bertako piztien ahotan erori gabe, baina

boteretsua bezain krudela dirudi, bart egin zenuten odolezko eskaintza horrek erakusten duen bezala. Adeitasunez jokatuko dugu bakoitzaren mugak errespetatuz eta zuen ontzia konpontzean, alde egin beharko duzue hemendik, zuen odolez zikindu baituzue gure amalurra– eta mimika erabiliz, beraien itsasontzia eta odolez tindatutako harkaitza seinlatu ondoren esandakoa adierazten saiatu zen Xemein.

Gudarien arteko batzuk hurbildu eta ura eta janaria utzi zuten hondartzan artilezko larruen gainean. Xemeinek arrotzek ekarritako marmol bat hartu zuen eskuetan eta bizpahiru aldiz behatu zuen bere zorroan sartu aurretik. Gero feniziar merkataria berriro ere eskaintzetara hurbildu eta erakustaldi bat egin zuen, gauza bakoitzaren balioa adierazi nahian. Bitxia zen pertsona hau, beste arrotzen artean ezberdina, oihal zuri batek goitik behera estaltzen zuen, baita burua ere eta bibote beltz batek margotzen zuen bere aurpegia kontraste bitxi bat sortuz zuritasun harekin. Merkataria Xemeinen begirada kuriosoaz ohartu eta oihala ukituz atorra, hitza esan zuen: atorra!

Xemeinek errepikatu zuen: atorra, atorra.

– Jatorra dirudi –esan zuen bere kolkorako– eta ezpata hartuz, hondarreak marrazki bat egin zuen non itsasontzia eta hondartzaren muga agertzen ziren. Gero, zirkulu zabal bat eginez, ehiza eta egurra lortzeko eskaintzen zieten esparru librea gehituz.

Bi buruzagiek marrazkia begiratu ondoren, adostasun keinu bat egin, alde biko eskaintzak jaso eta batzuk basoan desagertu ziren besteak hondartzan itsasontzia erreparatzeko lanari ekiten zioten bitartean.

– Baal jainkoak emandako zigorrak agian beste alde argiago bat izango du. Beharbada, gure espedizioarentzat zerbait interesgarria egon daitekeelako bidali gaitu lur hauetara –zioen Himilkon buruzagiak egun neketsu baten ostean, loak harrapatu aurretik, atsedena hartzen ari zenean–.

Baina bai zera! Ez zirudien gerlari haiek aldiaren zeramaten tresneria zein janzeragatik, eta zer esanik ez, egindako eskaintzengatik ezer baliotsurik erakusteko aukera edo gogoia zutenik.

Hurrengo goizean euskaldunen bigarren bisita izan zuten, gerlari gutxiagorekin oraingo honetan, nabarmena baitzen itsasontziaren berreskuratze lanetan zintzo zebiltzala eta ez zirudien atarren asmoa Urdaibaiko lurretan gelditzea zenik.

Xemein eta Himilkon euren gerlari batzuen begiradapean aurrez aurre eseri ziren. Lehenak bere zorrotik bi harri atera zituen: bata, bezperan atorrak emandako marmola eta bestea, hura baino gorriago eta distiratsuagoa zirudiena, berea. Berehala Himilkonek merkatariari deitu zion, erakutsitakoa azter zezan. Atorraren harriduraz eta haien arteko elkarrizketaz ohartu zen Xemein. Baliotsua izango ote Urdaibaiko bestaldean, Santimamiñe ondoko Ereñozarre deituriko ingurunean, erruz aurkitzen zen harri mota hura?

Atorra altxatu eta mimikaz, ea... non? Non ote zegoen harri gorri-distiratsu hura? ... Xemeinek, feniziarrek bezperan eskaini oihala zabaldu eta lurrean jarri zuen. Hutsik zegoen eta hura nolabait bete behar zuten, armaz kasu horretan. Arrotzen armak landuagoak ziren, sendoagoak, erakargarriagoak eta arma bakoitzetik pieza bat jarri zieten. Etorri bezala alde egin zuten euskaldunek, isiltasunean, atarren galderari erantzunik eman gabe, momentuz.

Goizero ehiza uzten zieten hondartzan. Bazirudien ez zutela nahi atorrak denbora gehiegi galtzea, itsasontziaren konponketan ez bazen eta isiltasunezko itun bat bezala gauzatu zen haien artean. Euskaldunek ehiza eta ura ekarri eta atorrek lanean jarraitzen zuten.

Hondoratutako beste bietatik baliatutako egur zein materialekin, lortu zuten hondartuta zegoen gerlaontzia berreraikitzea. Orain arazoa hondarretatik ateratzean zetzan.

Urdaibai itsasadarra eta bere inguru zoragarriak itsasoaren eta ilargiaren marearen dantzaren arabera antolatzen zuen egunen joan-etorria eta bertan duela milaka urte bizi ziren euskaldunena, nola ez. Horregatik, biztanle haientzat garrantzitsua zen ahalik eta gehien jakitea mundu urdin eta ezezagun haren gorabeheraz eta hari etekina ateratzeko teknikei buruz. Euskaldun haien arrantza, ibaikoa zen, nahiko oinarrizkoa, marea behera aprobetxatuz sarek zein sardez egindakoa. Itsasoa eta bere apeta guztiek beldurra eta errespetu ikaragarria sortzen zieten eta berarengana hurbiltzeko ausardia ez zen ia planteatu ere egiten haien buruetan; baina, orain, atorren etorrerarekin mundu berri bat eskura antzeman zezaketen.

Hasiera batean ezkutuan, baina konfiantza handituz zihoan neurrian, kanpalekuan bertan, ontziaren konponketaren inguruko gorabeherak aztertzen aritu ziren euskaldun batzuk, prozedura ulertu nahian edo, jakin-minez. Beti hiruko berbera zen adi-adi zegoena eta ezagunak ziren jada marinelen artean.

Matxuratutako ontziaren itsasoratzeari konponbidea bilatu aurretik, euskaldunek beste zerbait egiteko asmoa zuten. Ontzi txikiak egiteko eta menderatzeko teknika

ikasi nahi zuten eta horren truke Ereñuzarreko harri gorriaren kokapena erakusteko prest zeuden. Marrazkiz zein keinuz, hori guztia adierazten saiatu ziren eta halanolakako adostasun batera iritsi ondoren espedizioa antolatu zuten.

Mundakako hondartzatik, Oka ibaia igaro zitekeen guneraino eta handik marmola zegoen lekuraino, azkar ibiliz gero, egun bateko ibilbidea zuten joan-etorrian, aurrena Urdaibairen ertzetik, eta Oka zeharkatu ondoren, aldapan gora, Santimamiñe koba sakratuaren aurretik pasatuz. Arin ibili behar zuten udako solstizioak egunari ematen zion luzapen aparta profitatuz.

Feniziarren aldetik Himilkon, merkataria, eta sei gerlari zihoazen eta euskaldunen aldetik Xemein eta beste sei. Bidea segurua zen eta azken boladan ez zegoen gatazkarik Oka ibaiaren buruan zeuden haranetako beste leinuekin. Bake garaiak ziren.

Ibilaldiari ekin zioten basoa zeharkatzen zuen bidexka batetik, itsaso hurbilaren kresala ezpainetan sumatuz. Aste bat igaro ondoren bazegoen gutxieneko konfiantza bi herrien artean, inork ez baitzituen hautsi ezarritako mugak eta tratua errespetuzkoa izan baitzen bi aldeetatik. Airean berriro ere ekaitz ostean entzundako enbor-hots bera dantzatzen zen errepikakor, erritmikoa, zerbait adierazi nahian.

Eguerdirako iritsi ziren Oka ibaia zeharkatzerik zegoen gunera eta han zeuzkaten itxoiten beste sei gerlari. Azken egunotan oso zabaldua zen atorren etorrera eta denek ezagutu nahi zituzten, beraien armak, arropak, itxura ikusteko. Itsasoak erditutako gizakiak aurrez aurre izatean saiatu ziren bere begietan gordeta zeuzkaten itsas irudi eta bizipenen isla txiki bat, magia hori, bereganatzen.

Ibai ertzetik Ereñuzarreko harri gorrietaraino aldapa zorrotz bati ekin behar zioten

eta Santimamiñe momentuz alde batera utzi, agian itzuleran ikusteko. Inguru hartara iristean aurrez aurre ikaragarritzko pareta gorria ikusi zuten eta lurrean barreiatuak ekaitzak edota berezko lur mugimenduak zirela medio askatutako xafla galantak, gorriak, distiratsuak.

Atorrek harrobirantz jaitsi eta han egon ziren berriketan paretari begira, zati batzuk hartu ondoren itzultzeko. Irribarretsu zeuden.

Eguzkiak zegoeneko ortziaren ibilbide gehiena burutua zuen eta gainbehera zihoan. Euskaldunak atorren urduritasunaz konturatu eta itzulerari ekin zioten. Kresal usaina zekarren itsasoko haizeak, Urdaibain barrena zabalduz eta ingurune horrek behin eta berriro gogoratzen zien bertakoei itsasoa eta ura zirela jaun eta jabe. Horregatik atorrek ontziak egiten erakutsi beharko zieten alde egin aurretik.

Itzuleran beste norabide bati lotu zitzaion taldea eta euskaldunen presentzia gero eta ugariagoa zen bidezidor batetik hasi ziren mendian behera. Koba baten ahora iritsi ziren jende andana baten artean eta hitz berbera errepikatzen zuten irribarretsu arrotz haiek ikustean: atorra, atorra...

Feniziarrek harrituta, irribarrea itzuli eta bere taldeko euskaldunei so egiten zieten erantzun baten bila edo. Hauek gertaeraren egoeraz jabetuta eskua bizkar gainean jarri eta lasaitzen saiatzen ziren.

Gaua erortzear zegoen eta bazirudien bertan harrapatu behar zituela, kanpalekura iristeko aukerarik gabe. Urduritasuna zabaltzen hasi zen feniziarren artean, haitzulo hartan hainbeste jendez inguratuta edozer gerta zitekeen eta.

Beraiekin zihoazenek armak kobazulo kanpoan utzi eta gauza bera egitera gonbidatu

zituzten, adeitasunez, atorren beldurra eta mesfidantza uxatu nahian edo. Ez zuten beste aukerarik, eta garbi zegoen armak utzi edo ez erabat salduta zeudela balizko segada baten aurrean. Elkarri begiratu eta men egin zuten.

Xemein eta beste buruzagi batzuk ziren nagusi sarreran piztutako sutzar baten inguruko eleketan. Haiekin batera emakume talde bat edabe batzuk banatzen ari zen denen artean. Kobaren txoko batean txalapartaren soinua, ekaitzaren ostean eta bidaiaren hasieran entzundako soinu bera, espazio guztia betetzen hasten zelarik. Edabea beraiengana iristean urrup egin eta gero, bai beso bai zangoetan ukendu likits bat igurtzi zieten emakume haiek irribarretsua. Oraindik mesfidantzaz, arropen artean zeramaten hainbat laban ukitzen zituzten badaezpadako erasoaldi bati erantzuteko prest, baina hasierako tentsioa lausotzen hasia zen edabe zein ukenduaren poderioz seguruenez, eta suaren inguruko dantza erritual baten, ikusle izatetik partaide izatera pasatu ziren, adar antzeko zein txalaparta soinuek besoetan eroriz.

Bat-batean musika eten eta emakume bat jarri zen zirkuluaren erdian beraiek seinalatuz: Atorrek, atorrak... eta konturatu orduko buruetan irudi-andana batek korritu zuen: Gades, bidaia, ekaitza, euskaldunak, Ereñuzarreko harri gorria, beraien itsasontzia, beste bi txikiagoak eta Iزارo uhartea urrutian, kostaldeko Matxitxako lurmuturreko sutzarraren argitasunpean.

Eta irudipen horren ondoren berriro ere kobazuloa, emakume hori eta dantza sutzarraren inguruan. Feniziar guztiek elkarri begiratu eta harridura beraren mende zeudela ohartu ziren. Arnasa sakon hartu eta suari begira jarraitu zuten. Halako batean batzuk kobazulotik lasterka atera eta botaka hasi ziren, tripak leher zorian, beste batzuk lurrera ziplo, koban bertan, erortzen ziren bitartean. Ez zen inor zutik

geratu.

Hurrengo goizean egunsentiarekin batera itzartu eta ajeari aurre egin nahian edo ura edaten hasi ziren. Ez zegoen inor koban, eta sabaia bera ere ez zegoen kearen kedarrez zikinduta. Dena amets bat izan ote?

Leizearen iluntasunetik kanpoko argitasunera atera bezain laster, beraien euskal bidelagunak zain zeuzkaten itzulerari ekiteko prest.

– Herri basatia dirudi baina magia indartsuaren jabe dira. Sekula ez dut halako sentzaziorik izan eta ez naiz bakarra nire taldean. Denok irudipen bera izan dugu, seguruenez drogaren eraginez, baina gure herriko edozein droga baino indartsuagoa da hau edo bestela botere bereziak izango zituen beraien sorginak, zirkuluaren erdian jarri zenak.

Merkataria hurbildu zitzaion, erdi zorabiatua hura ere:

– Himilkon, ikusitakoak ikusita, herri boteretsu baten aurrean gaudela dirudi, ez dira basati hutsak eta konturatu bazara gure itsasontzia berreraikitzen ari ginenean han geneuzkan haietariko hiru begira etengabe.

– Haien buruzagiak egindako marrazkiaren arabera itsasontzi bat eraikitzeko teknika erakuts diezaiegun nahi dute eta gure legeen kontra doa hori, badakizu zein den zigorra Himilkon!

– Bai, badakit baina haiek ez dute nahi itsasontzi handirik, aski izango dute ibai honetan gora eta behera ibiltzeko adina den ontzitxo bat, eta horrela gure teknikak ez dira haien eskuetan eroriko. Hori edo hemen gelditzea betirako, ez itsasontzirik eta ez leporik, beharbada. Oso harri baliotsuaren kokapena

erakutsi digute eta horrek nire ustez merezi du ontzi ziztrin bat eraikitzea, ez duzu uste?

Merkatariak onartu zuen buruzagiak proposatutakoa, azken batean eraikiko zuten erdipurdiko txalupa urte baten bueltan ibai hondoan egongo zen eta berarekin feniziarren sekretu hori ere.

– Atorra hauek kultura indartsu baten jabe dira baina konturatu dira dagoeneko gureak baduela beste erabateko indarra, seguruenez beraien magia baino boteretsuagoa. Pentsatu nahi dut guretzat hain balio gutxikoa den harri gorri horren truke ontzien teknika erakutsiko digutela, baita ongi erakutsi ere, eta berriro noizbait etortzen direnerako, egindako hori hobetzeko gai izango garela beraien harridurarako.

– Nola eraiki eta nola menderatu izango dira baldintzak harri gorria hemendik eramanez ahal izateko. Gure herriak Urdaibai ingurune aberats honi ahalik eta etekin handiena ateratzeko giltza izango dira atorrak –zioen Xemeinek–.

Mundakara iritsi bezain laster feniziarrek hondartzara jaitsi eta harri gorriaren aurkikuntza zein kobazuloan bizi izandakoa kontatu zuten. Hala ere bi arazo zeuzkaten gutxienez esku artean. Alde batetik, konpondutako ontzia itsasoratzea eta seguruenez euskaldunek lehentasuna emango ziotena: txalupa baten eraikitze eta menderatze teknikak erakustea.

Euskaldunek euren hirukotea jarri zuten lanean atorrekin batera eta hamar egunen bueltan bazituzten bi ontzi itxuroso masta eta guzti, itsasoratzeko prest. Orain ibaian gora eta behera ibili beharra zegoen haien oreka probatu eta euskaldunek ezagutzen ez zituzten sentrazio berriak eta beldurrak uxatzeko. Zorabioa eta oreka eza ziren

nagusi euskal marinel estreinatu berriengan baina halere egun batzuen buruan bereganatu zituzten oinarrizko teknikak.

Ontzi berriak ateratzen ziren bakoitzean, harkaitzak euskaldunez betetzen ziren eta dena zen zurrumurrua, barrea eta harridura. Bertan aritzen ziren marinel berriak, atorrak kenduta, munduko trebeenak sentitzen ziren eta zegoeneko trebe xamarrak bilakatu ziren. Horrela uste!

- Heldu da gure gerlaontzia itsasoratzeko tenorea eta horrela adierazi behar diot euskaldunen buruzagiari. Badugu geure herrira itzultzeko eta pare bat gauza adosteko beharra –esan zuen Himilkonek–.
- Zeintzuk? –erantzun zion merkatariak–.
- Bat, geure ontzia itsasoratzen laguntzea eta bi, harri gorri gehiago eskuratzeko saiakera egin nahi dugula geure ontziarekin, baina ibaiaren puntu batera iritsitakoan beraiei eraikitakoak erabili beharko ditugula azaleko ur horietan materiala garraiatzeko. Horrela bidaia luzexeago bat egiteko aukera izango dute beraien “marinelek” –eta hitz hori esatean barrez lehertu egin zen– beraientzat hitz horrek pisu handia zuelako, hainbestetan zeharkatzen zuten ur sakon eta arriskutsuak emandakoa alegia, eta euskaldun haien urak zein ontziak azalekoak besterik ez ziren.

Bi hilabeteren buruan, elkar ulertzeko oinarrizko hiztegi baten jabe ziren eta beren asmoak aditzera eman ondoren hurrengo egunean bazeuzkaten hondartzan zaldi indartsuak eta hainbat enbor, ontzia gainean jarri ondoren irristatzeko prest. Ez ziren ez motelak euskaldun hauek, azkar ikasten zuten, azkarregi!!

Marea beheran enborrak trabes ezarri zituzten eta zaldiekin ontziaren txopari heldutako soka sendoak erabiliz, tenkatu eta tiraka hasi ziren denen artean marea gorarekin batera zetozen olatu berriei begira bultzatuz. Hainbat olaturen ostean, ontzia ibaiaren bokalean orekatzea lortu zuten eta poliki-poliki eraikitako bi ontzi txikiak profitatuz bai gizonak bai kanpalekuko hornidura ontziratzen hasi ziren euskaldunen laguntzarekin. Hurrengo egunean dena prest zegoen marmol gorriaren bila joateko.

Itsasadarra berriro txalaparta soinu bete zen eta nonahi ikus zitezkeen euskaldun taldeak ibilbidean gaindi begira, ikuskizuna ezohikoa eta ikusgarria baitzen eta ez zuten sarritan halako ontzi aparta ikusteko aukerarik izango Urdaibain barna, bere oihalak puztuta, brankan erronka egiten zuen zaldi burua bidea irekiz eta alboetan bi begi erraldoi bortitzak edonor desafiatuz, ez, halakorik ez zuten berriro ikusiko luzaroan.

Ontziaren erdialdean altxatzen zen dorretxoan, gerlari dotoreak zelatan zeuden, aurrerago, atorra zuriz jantzita, atorrak, bai, euskaldun haientzat hain deigarriak izan ziren atorrek, norabidea markatzen zuten itsasadarrean gora, marmol gorriaren bila, eta ontzi nagusiaren aurretik, euskaldunentzat eta euskaldunekin eraikitako ontzi txikiak, bi eserleku eta masta batekoak, arin-arinak haizearen bultzadapean, nahiz eta bertan zihoazen euskaldunek lema geroz eta hobeto maneiatu, sorginkeri horren aurrean edozein jainko baino boteretsu zein urduriago, uraren azala urratuz.

Ontzi nagusiak aurki gelditu behar izan zuen, nahiko sakonera ez zuten uretara iritsi aurretik, eta beste biek egin behar izan zituzten pare bat itzuli, zegoeneko Ereñozarretik Oka ibaiaren ertz batera ekarri eta metatutako marmol gorria garraiatzeko.


Herri bakoitzak hartutako akordioak bete ziren eta esan beharra dago haien arteko harremana zuzena izateaz gain lagunartekoa bilakatu zela udako solstizioan, halabeharrez, lurra hartu eta bi hilabete beranduago ilargi betearekin Urdaibaiko itsasadarra utzi behar izan zuten arte.

Gaua zen, baina ilargi potoloaren argia eguzkiarena baino egokiagoa zen feniziar haientzat itsasoratzeko eta agurtzerakoan Xemeinek azken eskaera egin zien atorre. Goitik behera zuriz jantzitako merkatariaren atorra opari ziezaietela, haien etorrera gogoratzeko eta ospatzeko asmoz.

Halaxe izan zen eta Himilkonek lehendik hitzartutako beste betebeharrak bat gogoratu zion euskaldunen buruzagiari: Udako Solstizioaren ospakizunean bai Ogoñon zein Matxitxakoko lurmuturretan sutzarrak piztu zitzatela astebetetz, beraien itsasontziek egingo zituzten bidaietan ikusi ahal izateko, haien arteko harremanak sendotzeko asmoz.

Xemeinek eta Himilkonek elkar besarkatu ondoren, bi ontzi txikiak atzetik jarraitu zioten ama-ontziari, atorren ontziari. Ilargiak zilarrezko dirdira ematen zion ontziak utzitako uberari, Mundakako mugaraino, momentuz hura baitzen euskal marinel berrien itsas-muga, baina ez luzarorako.

Ikusi arte Atorrak!





HOU, PITXU, HOU!

Bedatsian

Bedatsian dirade zühainak loratzen
Udan ekhiarekin bazterrak berotzen
Larrazkenian aldiz egünak laburtzen
Negian haize hotza hezürretan sartzen.

Neguan haize hotza hezurretan sartzen eta Donegoiti herrixkako teilatuak estalitako arbelaitz beltz-distiratsuetan elur-malutak pausatzen dira kantoï aparta honetan. Oihana goitik eta bortu ederrak lainoetan barna galduak alde batetik eta erreka zalapartatsu, malkartsua beste magaletik, inguratzen eta osatzen zituzten Xiberoko herrixka ttipi haren bizitzaren esparruak.

Bizitza eta naturak beraien aroetan etengabeko gurpilari eraginez, inguru miresgarri zein bortitz hau aunitz kolorez margotzen dute etengabe, bertako bizidunen gogoak ere dantza horren partaide direlarik, eta oraindik ere, bazter hauetan Maxkarada hitza ezaguna ez zenean, hainbat pasarte gertatu ohi ziren, ikurra betirako utziko zutenak, delako antzezpen erritual horretan.

Itzal luze bat, ez pagoena, makurtzen zen oihan barrenean ia lurrari zizelkaturik, zerbaiten esperoan, ehizaren zain.

- Egun osoa daramat jan gabe, beste kaütera alproja horiek auskalo non

galduta, erbi hori harrapatu nahian, neure tripak ezin baitu gehiago itxaron. Urratsak jarraitu ditut erbitxo maitea, badakit zure bidea, izango zara nerea. Ja ja ja...

- Hou, Pitxu, Hou!!!– oihuak eztanda egin zuen oihanean, hain juxtu Pitxuna delakoak erbi harrituaren gainean jauzi egiten zuen une berean...
- Eta kale! Kale egin dut kaütera nazkante hauen erruz. Epelak entzun beharko dituzte, bai alafede, gaurko bazkaria uxatu ez didate ba!... Non zarete? Astapito halakoak? Egun osoa oihanean galduta eta orain hain xuxen agertu behar kalapitaka? Kankailu potrosoak!
- Zaude lasai Pitxu gaztea, zaude! Zer da erbi bat baso miresgarri honek eskaintzen dizkigun aukera aparta guztien aurrean? Hori ez da deus, zer nahi duzu, jatea, maitia? Tori bizkotxa zoragarri hau.....kar, kar, kar.

Eta Kabana handiak aurpegian lehertu zion gorotz fresko bat, ongi igurtziz, beste kaütera guztien isekarako.

- Nazkanteak! Bai nazkante malapartatuak, gazteena naiz baina ez lerroa! Zuekin egotea baino hobe gizaki bihurtzea! Izango da haien artean norbait nor- malagoa, bai, banoa, utikan kaüterak! Utikan, –esanez, Pitxuk alde egin zuen lauhazkan pagadian gaindi desagertu arte.
- Bai zoaz gizakiengana eta jasoko duzu bizkarreko beroa, aurpegian duzun gorotza baino beroagoa, zure hezurren sufrikarioaaa, zoazzzzzzz...

Eta lurrean, bedatsearen etorrera zela eta urtzen ari ziren azken elurretan biribilkatu ziren Kabana, Pupu eta Fritu kaüterak gorputz iletsuak bustiz, algararen poderioz letagin eta otso muturraren ezpain-ertzetatik adurra zerien bitartean.

Donegoitiko herria zaintzen zuen dorretxe xumearen gezileihotik beha, duela gutxi hildako jaunaren premu gaztea zegoen, Jaun Beltza goitizenez, txikitatik famatua zen bere gaiztakeriarengatik, nahiz aita zenak urrutiegi joaten ez utzi bere eginkizunetan. Baina orain haren lokarriak hautsiak ziren eta Jaun Beltz gaztearen apetak eusteko mugarik ez zen. Emakumeekiko desira, borrokarako grina, herritarrekiko mespretxua eta bere gogoaren azken zokoan herriko esamesetan entzundako istorio baten sukar amaiezina: Betirako bizi! Betirako bizi!

– Aterako dut, bai, han edo hemen aterako diot jendeari nola eskuratu betirako bizi zaldi zuria harrapatu ondoren. Buhameek, ijito nazkante eta kalapitatsu horiek, zerbaiten berri izango dute bai. Buhame handiarekin mintzatu beharra daukat, berandu baino lehen, herri malapartatu honetatik alde egiteko baina Jaun Beltz boteretsu eta hilezina bezala, mugarik gabekoa. Eta hori esanez, kapa beltza jantzi eta zaldiz atera zen gaztelutik Buhameen kanpalekurantz.

Baso eta herritik gertu zuten kanpalekua buhameek eta bizpahiru etxola ziztrinetan bizi ziren, erdi-erdian beroa eta argia zerion sutzarraren babesean. Kedarrez zikinduak, janzkera koloretsua, ibilera baldarra eta hizkera zaratatsuen jabe ziren. Ezer gehiagorik ez eta maizago zeuden Donegoiti herriko kale zein etxe zokoetan bueltaka zerbait zorrotzu edo konpontzearen aitzakiaz, etxoletan baino.

– Buhame handia! Zaldi baten hots lasterrak aditzen ditut, erreka ondoko bidetik honantz! Zein ausartuko da gure “herrira” etortzen ordu txikietan? – zioen barrez buhame lodiak...

– Ero bat derrigor, txintik gabe geldituko dena, ez zaldi ez ezer, hor ondoko

leizean bere tripa ustelak arrak gizentzeko bazka, besterik ez! Kar, kar, kar
....Prest segadarako! Abisatu beste buhameak!

Zaldunak pausoa moteldu zuen sutzarraren eremura iristean eta kapusai beltza aurpegitik kendu ondoren balezta eta ezpata erakutsi zituen, zera esanez:

- Ni erasotzeko prest zaudeten Buhame nazkagarriok. Jakin ezazue nor nauzuen: Donegoitiko Jaun Beltzaren semea naiz, eta zuek ere nire lurretan izanik ez zarete ni akabatzeko adorea jabe ezta gutxiagorik ere, eta gainera tratu baten bila etorri naiz. Bai, zuekin tratu bat egin nahi dut... Atera zaitetze kalamidadeak!!!
- Tratu bat? Tratu bat esan duzu “Jaun Beltx”? –esanez atera zen arrapaladan, sastraka artetik.
- Bai, halaxe da Buhame Handia. Tratu bat zuekin!!
- Zer tratu?
- Pitxu delakoa bilatu behar duzue oihanean barna eta berak gidaturik, bortu gorenetan larrean ei dagoen zaldi zuria ekarri behar didazue errekan goiti daukadan ehizarako etxolara.
- Hori besterik ez “Jaun Beltxa”? Eta guk zer irabaziko dugu horren truke?
- Urrea buhame madarikatuok, urrea... edo Donegoiti eta bere inguruetatik ostikoka kanporatzea. Astebete duzue esandakoa betetzeko edo gogor hartuko zaituztet! Aio buhameak eta gogoratu! Hurrengoan ez naiz bakarrik etorriko, beraz bete tratua!!

Buhameak hala-moduzko ehiztariak ziren, ez onak baina bai sarraskigileak, modu batean edo bestean, xederarekin edo ehiza modu krudelean burutzen iaioak. Noizbehinka ez gizaki ez abere diren halako piztiak harrapatzen zituzten eta horregatik bazekiten, oihanean bazirela kaüterak deiturikoak, negu gorrian beste otsoen taldeekin batera herrietara jaisten zirenak bazka bila, edozein bazka bila. Herritarrek gorrotoa eta beldurra zieten Gauekoren seme madarikatu horiei.

Haietariko gazteena bilatu behar zuten, Pitxu deitzen ohi zutena, besteak arriskutsuagoak baitziren, makurragoak. Elurretan iragan neguan antzemandako urrats berri batzuk zirela medio bazekiten, kaütera gazte bat bazegoela, eta interesgarriena, taldetik aparte gehienetan.

– Zaldi zuria? Zertarako nahiko du Jaun horrek bortuetan larrean dagoen zaldi zuri aparta? Zer atera dezake haren atzematearekin? Hau kuxidatea! Hainbeste zaldi goxo bere ukuiluetan eta zuria nahi. Zein apetatsuak diren gizaki hauek! Eta gainera buhame basati eta ezaxolati hauengana etorri halako zaldi berezi bat harrapatzeko. Ezgauza diren hauek, oilo txepel bat harrapatzeko gai ez dira eta!!.

Buhamen kanpalekuaren mugetatik alde egin bezain laster, orbelaz gainezka zegoen lurrak beheara egin eta ez lur ez elur, zulo baten barrenean zegoen harriaren kontra jo eta konortea galdu zuen gure Pitxu kuxkuxeroak.

Hurrengo egunean buhame lodia, trebeena, Donegoitira joan zen bera ez baitzegoen basoko malkar haietan gora eta beheara ibiltzeko prest. Nahiago zuen pertz batzuk konpondu eta labanak zorroztu oilo zahar baten truke, gaueko lapikoak zerbait itxurosoa izan zezan. Donegoiti herrixka, Jaun zaharra hil zenetik, egunetik egunera

okerrera zihoan, nabarmena zen kaleen zabarkerian, baserrietako harrera txarretan eta herritarren esamesetan.

– Jauna hil denetik ez dugu atarramentu onik! Gazte honek bere gaztelua besterik ez du begi artean, hura dotoretu eta soldadu gehiago hartu babesteko. Babesteko? Non dago arriskua ba? Bera ez besterik ez baita arriskuan jartzen ari dena herri honen bizi iraupena eta bost axola gure miseria eta beharrak. Martxa honetan gureak egin du! Ezin diegu luzaroan eutsi bere eskaerei, oraindik ere udaberrian gauden honetan...

Gaur ere ez zen izango azken egunetako hoztasunaren segida baizik, eta buhameak zerbait irabazi ondoren kanpalekurako bideari ekin zion kantari, ozenki, bere ahots zartatu eta zaratatsuekin beste kideek bera eta ez beste inor zela ohar dantzan zitezten. Zalaparta dena den, kanpalekuan zebilen baita ere.

- Zer, zer dugu Buhame Handia? Zer berri?
- Zer berri diozu? Berririk onenak, sinesgaitzak! Gaur goizean kanpaleku inguruan ditugun tranpetariko batean ez dugu aurkitu ba kaütera bat!! Hain zuzen guk behar dugun kaütera gazteena, Pitxu alproja kuxkuxeroa, aspalditik gure inguruak miatzen zebilena, arrastoak nonahi utzirik, eta azkenean erori da, inuzente hori!!
- Bai Buhame handia! Baina beste batzuetan ere harrapatu izan ditugu kaüterak eta zergatik da hau hain berezia? Eh?
- Lodia bezain ergela zara Buhame gizen hori!! Astebete genuen Pitxu atzeman eta zaldi zuriaren xerka joateko, eta hara non Pitxu bera erortzen den gure segadan!!!!Ez al duzu ikusten? Berak badaki beste kaüterak bezala oihanean, zein bere inguruko bortu eta larreetan dabilen lau hankatako janariaren gora

behera guztiak, bera izango da gure gidaria, eta berari esker atzemango dugu zaldi zuria, eta horren truke urrea eta agian leku bat Jaun Beltxaren gaztelupean. Ikusten, ergela?

– Eta zuk uste Pitxuk esango digula non dagoen?

– Bai lodikote!! Bere izatea berez kuxkuxeroa da eta utzitako urratsengatik badakigu aspaldi honetan bere taldetik aldentuta dabilela, auskalo zergatik, gauza berriak ezagutu nahian edo. Bere jakin-minak hondamena ekarriko dio noizbait, seguru nago.

– Ene Buhame handia! Handia eta azkarra zara benetan! Gaztelu horretako Jauna zu zeu izan behar zinen Buhame. Oh Buhame aparta!Kanta bat merezi duzu. Itxoin pixka bat eta kanta zoragarri bat sortuko dut zuretzat munduan zehar zeure abilezia ezagut dadin. Itxoin pixka bat!!

Buhame handia dugu

eta adimentsu!

Jaun Beltxak egin dio

halako enkargu

Zazpi egun baino lehen

zaldi zuria aizu.

Ekarri behar didazu

bestela akabu!!

Eta horretarako

Behar duzu Pitxu!

Behar duzu Pitxu!

Behar duzu Pitxu!

– Aski da! Aski da! Isil zaitez bestela kaütera guztiek gure asmoen berri izango dute! Eta hori al da ni famatuko nauen abestia? Zoaz etxolak garbitzera, Buhame lodikotea!– eta ostiko bat eman ez bultzaka eta irainka bidali zuen aldamenetik.

Orduan Pitxu lotuta zeukaten zokora hurbildu eta elkarrizketari ekin zion:

– Pitxu ez otso ez gizon lagun hori. Horrela dei zaitzaketa?

– Buhame, inongo arbola ez zaren hori, bai urde eta bai zerri, zergatik atxiki nauzu, kedar nazkagarri horrek?

– Aski da! Ez dugu irainka jarraitu nahi, biontzat zeregin garrantzitsuago bat baitugu esku artean. Biok ongi betetzen badugu gure lana mesedegarria izango da denontzat. Gizakiek ez zaituzte akabatuko eta ardikia noiznahi izango duzu eskura inorekin konpartitu gabe.

– Bai? Segur zaude? Eta zer dela eta halako tratu berezia? Zikiroen faltan zuek jango zaituzte gure beldur edo? Kar, kar, kar...

– Ez, ergel hori! Bortuetako zaldi zuria harrapatu eta Jaun Beltxari eramatea besterik ez da. Zer deritzozu?

– Zaldi zuria? Baina hori sakratua da! Zer egin nahi du berarekin? Horrelakorik ezin da egin!

– Zer sakratu eta zer akatu? Zuek ere herritarrentzat Gauekoren zerbitzariak

omen... eta begira! Hemen zaude lotuta. Tira, zurekin edo zu gabe atzemango dugu. Ezezkoa bada, zureak oraintxe bertan egin du, eta Buhame Handiak ezpata altxatu zuen kaütera gaztearen buru iletsuaren gainean, haren begiek ezpataren sorbatza distiratsuari izuz jarraitzen zioten bitartean.

– Bai ala ez Pitxu? Kaütera bati ze axola zaio zer egingo dion gizaki batek zaldi bati? Bai ala ez?

Pitxuk otso muturra zimurtu zuen letaginak erakutsiz eta men egin zien Buhameari eta haren mehatxuari. Lagunduko zien bortu goretan Zamaltzainak zaldiak, zaldi miresgarriak, zaintzen zituen etxolaraino.

Hurrengo egunean ekin zioten basoan barrena bidezidorretan zehar bortuetarantz, lau buhameak eta kaütera gazteak. Muturra sokaz lotuta zeraman eta eskuak ere, ez baitziren haren erreakzioaz fio. Sokaz ongi horniturik zihoazen harrapakin berezi hura ongi lotuta eramanez. Gainera, buhametariko batek zaldiak ongi baino hobeto ezagutzen zituen, bai tratutan ibiltzeko zein otzantzeko, onean zein txarrean. Pitxuk txintxo-txintxo markatzen zuen bidea eta ilunabarrerako begi bistan zeukaten kobazulo antzeko bat non berezko gordeleku baten barnean Zamaltzain mitikoak, inork ordura arte ikusi gabekoak, gauean bere zaldi miresgarriak gordetzen baitzituen. Urduritasuna, esparrura hurbildu ahala handitzen zihoan eta bidean egindako kanta eta zalaparta guztiak fitean desagertu ziren. Inor ez zen oraindik Zamaltzainaren larretara iritsi, ezta artzainik ausartena ere. Larre eta zaldi haiek ba omen zuten zerbait magikoa, zerbait berezia eta Zamaltzain zaindariak, agian Gauekoren menekoak, baita ere.

– Tentuz ibili beharko dugu baina dena den sineskeria hauek ez gaitzatela

beldurtu, buhame lagunak!! Kaüterak ere basoko pizti ikaragarriak omen, eta hara non gai garen segadan harrapatzeko noiznahi. Zergatik izan behar dira ezberdinak zaldi hauek? Erne Zamaltzainarekin. Gaua denean harrapatuko dugu zuria eta goizalderako, onean edo txarrean gurekin eramango dugu. Zer axola zaio zaldi bat gehiago edo gutxiago? Gainera guk ere baditugu gure belar miresgarriak abereak otzantzeko, ez al da hala buhameak?

Bai, halaxe zen eta harrizko esparrua osatzen zuen zirkulu hartako askan, belar batzuk bota ondoren, buhamea bere lagunak gordeta zeuden harkaitzetara bueltatu zen. Pixka bat itxoin eta zaldiak otzan baino otzangoak izango ziren. Zaldi ederrak ziren zinez, baina denen artean distiratsuen, zuria zen. Zoragarriena zen eta adats luzeak airean kiribiltzen zitzaizkion, urduritasunean trosta laburrak burutzen zituen bakoitzean. Zamaltzain birritan edo ikusi zuten zaldiengana hurbiltzen eta izaki handia, handiegia zirudien gauza onerako. Gainera haren begiek, noizbehinka, buhameak zeuden leku hartan arreta jartzen zuten, distira berezia, misteriotsua jaurtiz.

– Tira, ordua da –esan zuen Buhame txikiak–. Belarrek bere lana egin dute. Zaldiak lasai antzean daude. Ikusten duzue? Eta erraldoiak ere denbora luzea darama kobazuloan. Tentu handiz hurbildu eta zuriari gustuko fruitu hauek eskaini ondoren soka lepotik pasa eta muturra lotuko diot. Zalapartaka hasten bada uxatu beste zaldiak Zamaltzainak piztien eraso dela pentsa dezan. Konturatzerako urrutiegi izanen gara. Tira, goazen!!

Esan bezala egin zuten dena, baina Buhame handiak ez zuen dagoeneko Pitxuren beharrik, eta beste Buhameen dibertimendurako zera otu zitzaion:

– Tira! Aska ezazue gure gizotsoa, zalaparta pixka bat egin dezan, Zamaltzainaren loaldia eten eta gure gozamenerako, kar, kar, kar! Begira Pitxu, zure lana bukatu da, pizti halakoa! Orain segurki gose izango zara, ez baituzu ezer jan azken bi egunotan eta! Gizajoa!!. Ahul xamarra zaude baina agian oraindik moteldutako zaldi horietako bat harrapatzeko balentria izango duzu, ezta? Kar, kar, kar. Tira! zoaz zaldikiaren bila, otsoko, zoaz eta eramaitzazu aurretik Zamaltzainaren larreetan gaindi. Zoaz hezur eta azal zaren txakur goseti hori! Zoaz!! Kar, kar, kar.–

Eta algara batean lehertu ziren Buhameak, Pitxu maldan gora goseak xaxatuta eta haren zorabioaren noraezean itsu-itsuan bere heriotza izan zitekeen larretara, egunsentiaren lehen printzekin gerturatzen zen bitartean. Zaldien esparruan sartu zen jauzi batez eta ez zuen kontutan hartu belarren efektua iragana zela, zaldi beltzaren atzeko apatxen zeharkako ostiko batek bazterrera jaurti zuenean.

– Hatx! Behin bai baina ez birritan! Zure bizkar gainera salto egiten dudanean ez zara hain harro agertuko zaldi beltz. Halere nire lagunaren beharra izango dut zaldi eder hauek menderatu eta ehizatzeke.

Eta ainuri luze bat eginez bere gizotso kaüterak erakartzen saiatu zen, zaldi guztiak arrapaladan bere aurretik ateratzen ziren bitartean, izua begietan. Zalapartak lagunak baino Zamaltzain indartsua erakarri zuen, haren zorigaiztorako.

– Pitxu halakoa! Gazte gizotso kuxkuxeroa! Ez dituzu ongi ezagutzen nire zaldiak eta Zamaltzaina nauzun ni neu ere ez! Ez alafede! Eta eskuan zeraman zaldi-ilez egindako zurda luze bat airean astinduz tximista bat sortu zuen, eta gero beste bat eta beste bat, ortzia bere begi amorratuak baino beltzago

jartzen zelarik. Zaldi guztiak bere Zamaltzainaren tximistak entzutean itzuli eta juxtu basotik Kabana eta beste kaüterak Pitxuren laguntzan zetozenean, elkarren ondoan jarri eta denek izaki bat osatu zuten, erdi zaldi erdi gizon, hots, Zamaltzain bera, Zamaltzain erraldoi, dotore eta beldurgarria era berean, eta ikuskizun haren aurrean izuak jota, buztana hanka artean, basoan sartu ziren kaütera gizotsoak, lau hanketan.

– Zamaltzain nauzue kaüterak! Zamaltzain, gizaki oro! Erdi gizon, erdi zaldi, Xiberoko larreetako jainkoa, zaldien babeslea eta haien etsaien zigorra. Eraman duzuen zaldi zuria neure arimaren atal bat da eta berreskuratu beharra daukat bizirauteko osotasunean, orekan, Amalurrarekin. Non zaude zaldi zuri? Non zaude?– zioen amorrua, negarra eta ezina nahasturik eskuak zeru beltzerantz luzatu eta apatxekin lurra bortizki zapaltzen zuen bitartean.

Goiko larretan sinestezinezko ikuskizun hori gertatzen ari zen bitartean buhameen kanpalekuan dena zen poza eta dantza, zaldi zuriarentzat ezik. Gauzak ongi atera ziren eta beraien ustez saria gertu zegoen, baina garaipenaren mozkorraldian, buhameak, nahiko anarkikoak berez, Jaun Beltzak esandakoa bete beharrean, beraien gustuko festa zalapartatsua gauzatzen ari ziren Buhame nagusiaren handinahia asetu nahirik, kontrolik gabeko amesgaizto baten pare.

– Trebeak garela erakutsi dugu! Inor baino ausartagoak garela erakutsi dugu! Zamaltzain bera baino azkarragoak! Kaüterak baino gaiztoagoak! Jaun Beltzaren zerbitzari leialak!!! Kar, kar, kar. Nahiz eta guk inongo Jaunik onartu ez.... kar, kar, kar. Honen guztiaren berri ez al dute izan behar Donegoitiko herriak eta bertako herritar zintzoek? Baietz uste dut. Haiengandik, herritar “zintzo” horiengatik, guk buhameok jasandako mespretxu eta irainek

gutxienez barkamen publiko bat merezi dute, gure balentria eta ausardiaren aurrean. Bai! Herriko alproja guztiak eta basoko kaüterak lagun ditugularik, Buhame handiaren aurrean eta guk harrapatutako zaldi zuriaren aurrean belaunikatu eta barkamena eskatu beharko digute, bestela herria bera txikituko dugu. Bai jaunak, hauxe da Buhame handiaren nahia eta Jaun Beltxari bere zalditxo eman aitzina betearaziko dieguna. Zoazte buhame malapartatuak!! Zoazte eta ekar itzazue kanpalekura kaüterak, kherestuak, eta marexalak eta bide bazterretan aurkitzen dituzuen alproja eta lapur guztiak. Aurki, Donegoitiko herrian sartuko gara, Buhame handia zaldi zurian doalarik, errege baten pare bere armadarekin... kar, kar, kar, Zoazte alajaina!!!! Kar, kar, kar. Buhame errege!!

Bai, buhameak joan ziren bere nagusiak esandako jende malapartatu guztiaren xerka, baina, buhameen artean beti dago aitzaki bat edo beste. Haietariko bat Jaun Beltxarengana hurbildu zen berria ematera horren truke zerbait hartuko zuelakoan, eta bai, jaso zuen afari eder bat soldaduekin batera eta bukatu ostean, ostiko bat gibelean eta mozkorraldiaren eraginez loaldi luze bat dorretxearen atzeko atean, euripean.

Halaxe, Jaun Beltxak guztiaren berri izan ondoren bere burua ausart eta herritarren aldeko agertzeko prest zegoen, hurrengo egunetan, esan eta ikus zitezkeenak edozein unetan gezurtatu eta borrokatzeko parada bilatuz, eta hala edo nola zaldi zuria bere eskuetan atxikitzeko edozein aukera profitatuz.

Iritsi ziren bazter guztietako alproja, behartsu eta kaüterak ere eta denek batera ardoz beteriko gau zoro batean adostu zuten herriko jaun berriak bilakatu eta txiki arraio utziko zutela Donegoiti eta Jaun Beltxa bera ere, hain ziren handiak

mozkorraldiak emandako hegoak eta amets burugabeak. Esan eta sinetsi. Buhame errege! Buhame errege! zioten denek aho batez. Eta orgia honetan behin eta berriro kanta bera entzuten zen malapartatu guztien ahotik:

Bühamiek badakie

Trinkin-trunkun egiten

Oiloino bat ebatsetan

Altzopian gordetzen.

Ai ürdia, ai ürdia

Ürde, ürde handia

Ai ürdia, ai ürdia

Ürde bühame handia

Bühameak erosi du

Bi sosetan ogia

Lagünari saldü dio

Lau sosetan erdia.

Ai ürdia, ai ürdia

Ürde, ürde handia

Ai ürdia, ai ürdia

Ürde bühame handia.

Hurrengo goizean, ajea errekako ur hotzetan baretu ondoren, martxan jarri zen inoiz sortu den kalapitazko sasi-armada: Buhame handia zaldi zuriaren gainean beste buhameez inguratuta, denak zalapartaka, kherestuak zaldiaren inguruan imintzioka zaldiaren koskabiloen bila, ezkerraldean ferratzaileak edo marixalarrak, Kabana,

Pitxu eta beste kaüterak atzealdean builaka, ainurika, orroka, bufaka eta bukatzeko txingotekeri hura, bidelapurrak, eta zarpaila zen jende oro. Donegoiti begi bistan zuten.

– Donegoitiko herritarrok! Jaun Beltxaren premua nauzue! Eta atzo esan bezala errearen bestaldian, zubia igarotzeko prest, ikusi ahal duzue alprojaz osatutako gaizkileen talde hori gure herria menderatzeko asmoz! Ni Jaun Beltx berria, herria defendatzeko prest nauzue eta bide bazterrak halako jendailez garbitzeko ere. Herriko ate nagusia barrikadaz josi dugu eta seguruenez ez dute gaudituko! Baina gauza bat jakin behar duzue: zaldi zuri hori da haien indarra, hori uste baitute dela borroka irabazteko giltza eta horregatik harrapatu eta neure dorretxera eraman beharra dago, kosta ahala kosta, eta bai buhame eta kauterei, eskarmentu ederra eman behar diegu berriro halakorik egin ez dezaten. Herritarrok, dirudienez iritsi da eguna non aspaldiko partez, basoko eta goiko larreetako indar ilunek gure herria menderatu nahi duten. Eman diezaiegun, beldurrik gabe merezi duten tratua. Gizakia eta legea nagusiarazi behar ditugu, ezkutuko indarrek ez gaitzatela makurtu!

Herritar guztiek bazekiten, ez ikusi arren, bazirela basoko eta larreetako espirituak eta urtetik urtera gertuago sumatzen zuten haien presentzia eta eragina. Bazirudien berandu baino lehen bi munduen arteko lehendabiziko talka hura gertatzear zegoela eta delako eguna iritsi zen. Kauteren itxura eta izaera basatiak beldurra eragiten zuen herritarren artean, eta zaldi zuriaren presentziak ere egoneza sortzen zuen, urduritasuna. Baina buhame malapartatu haiek bi mundu horietako izakiekin batera bazetozen elkar hartuta, eta beharbada haien botereak ez ziren hainbesterako izango. Aurre egin beharra zegoen.

– Donegoitiko herritarrak! Buhame eta Kabana Handia gaituzue! Urtetan zuen mespretxua jasan dugu non “buruzagiak”, –eta bere baitan barre egiten zuen– . Oraintsu, buhameok goiko larretako zaldi zuria harrapatu eta otzandu dugu eta gurekin batera ikus dezakezuen, basoko gizotsoak ditugu, kaüterak! Hemendik aurrera zuen herriko nagusiak izango gaituzue eta halaxe zerbitzatu beharrean egongo zarete, nahi ta nahi ez. Bestela zuenak egin du eta baita zuen Jauntxo ziztrin horrenak ere. Bai hor, herritarren atzean, gurekin ezkutuko tratuetan ibili ondoren auskalo zer maltzurkeriak prestatzen ari den jauntxo horretaz mintzo natzaizue. Jauntxo Beltza baino Jauntxo Iluna deituko nioke neronek. Non zaude?

Jendartetik bere soldaduz ondo inguratuta zaldian aurrera egin zuen urrats batzuk Buhame handiari zera esateko:

– Nik zuekin ez dut inongo traturik egin, ez orain ez inoiz! Gezurtiekin zertan ibili? Eta gainera zuek zer izan dezakezue nire gustuko? Utikan parodiaren buru zaren hori! Bi gauza egin behar dituzue onik ateratzeko ataka honetatik: bata, zuen taldea desegin eta bakoitza bere zulora itzuli; eta bestea, egindako mehatxu eta laido honen ordainetan zaldi zuria eman. Eta...

Orduan Pitxu gazteak moztu zion:

– Hemen ez dago laidorik, gezurti halakoa! Zuk eman zenien buhameei nire laguntzaz zaldi zuria harrapatzeko agindua, auskalo zer gaiztakeri burutzeko! hau ez baita zaldi arrunt bat, Zamaltzainaren zaldi kuttunena baizik, eta ulertuko duzunez, edo gure eskaera betetzen duzue edo aurrerantzean ez da bakerik izango herri honetan eta basoetako piztiok zuen barrunbeak

hartuko ditugu afaritzat.

Hau esan bezain laster kaüteren taldeak barrikada gainetik sekulako jauzi batez igaro eta herritarren aurka oldartu ziren otso amorratuak bezala. Jaun Beltzak, berak ere, ezusteko eraso horren aurrean, atzera egin zuen une batez, babesik gabe gelditu baitzen beltzen taldea barrikada handik eta hemendik zeharkatu nahian zebilen bitartean.

Herritarrak lehen eraso bortitz horren aurrean atzeraka ari ziren eta une horretan bi arkularik alde zurretik prestatutako segadan geziak jaurti zituzten Buhame handia eta Pitxuren aitzia. Biak bete betean harrapatu eta lurrera erori ziren lepoa zulatuta. Zaldi zuria bakarrik gelditu zen plaza erdian hara eta hona, soldadu baten eskuak bere brida hartu eta bertatik aldendu zuen arte.

Beltzen taldeak hori ikustean, bat-bateko amore hura galdu eta atzeraka egin zuen, barrikadatik at eginez herritarrak eta hainbat soldadu bortizki jazartzen zituzten bitartean. Ate nagusitik erreka zeharkatzen zuen zubirainoko bidea hilotzez beterik zegoen, Donegoitiko herritarrek bere lehen gudaldiaren garaipena ozenki ospatzen zuten bitartean, inor ez zen konturatu zaldi zuriaren nondik norakoaz. Jaun Beltza eta bi gudarik ezkutuko etxola batera eraman zuten dena baretzen zen bitartean.

Basoan inork antzeman ez zituen begi gorriak hura guztia behatzen ari ziren.

Jaun Beltzak bere hitza bete zuen bazterrak jendaila horretaz libratuz, horrela zioen berak, eta putre, bele eta beste piztiak lan galanta izan zuten hurrengo egunetan hezurak zuritzen. Aldi baterako, ongi erabilitako aitzakiz, jauntxoarentzat eta

hainbat herritarrentzat desatsegin edo arriskutsuak zirenak desagerrarazi zituzten. “Aitzakia zaharrak, indarkeria berriak”.

Pitxuren eta Buhame Handiaren gorpuen edo gorpuzkinen bila iluntasunean, Gauekoren babesean, etorri ziren beraien akolitoak, lehena oihanean barna eta bestea bide bazter batean lurperatzeko asmoz: “Urak dakarrena urak daroa” esanez. Amalurrak noizbait, modu batean edo bestean berpiztuko zituelakoan edo, betirako loaldirik ez baitago, esaten zuen buhame batek, eta “naturak beti heriotzatik bizitza sortzen baitu” erantzuten zuen kaütera batek.

Ezkutuko etxola hartan zeuden bi gudariak aspertzen hasiak ziren, gertatutako barrikada haustearen ondoren, bakarrik igarotzen ari baitziren egunen joan etorria, gero eta urduriago zegoen zaldi zuriaren irrintzien pean.

- Gaur etorri behar du Jaun Beltzak, ezta?
- Hala izango ote bestela hemendik alde egiteko gogoia ematen du eta.
- Gabon gudariak! Hor zaudete? Jaun Beltza nauzue! Dena ongi al dago? – esan zuen bat-batean agertutako zaldun misterioitsuak–.
- Bai dena ongi jauna! –erantzun zuen batek urduritasunez–.
- Aparteko zerbait bai? Ezusteko bisitaren bat edo?
- Basoko piztiak ere ez dira hurbiltzen etxolara. Bitxia da! Badirudi zerbaitek beldurtzen dituela.
- Zuen presentzia izango da. Kar, kar, kar, edonor beldurtzeko piura baituzue! Tira unea iritsi da eta zuek partaide izango zarete zeremonia honetan. Zaldi

zuria hil behar dugu eta gero, zatitu ondoren, duela aste bete prestatuta dugun egur-meta horretara bota eta sua eman.

– Baina jakin daiteke zertarako egon garen egunak eta egunak hemen sartuta, orain zaldi eder hau akatu eta sutara botatzeko?

– Begira soldaduok. Zaldi hori espiritu gaizto baten jabe da eta bera bezalako beste batzuk erakar ez ditzan egin behar dugu esandakoa. Erritual horretan nik bere odola edango dut, gero sua eman eta herrira bueltatuko gara. Han merezi duzuen saria izango duzue, jatordu ederrak eta emakume are ederragoak.

– Beno ba, egin dezagun lehenbailehen eta joan gaitezen herrira.

Hori esan eta ezpatak ateratzera zihoazenean basotik ezustean ateratako erdi gizon erdi zaldi erraldoi bat agertu zen eta lurrera bota zituen bi soldaduak.

– Nik ez nuke halakorik egingo. Zaldi horrek bizirik iraun behar du denon mesederako eta ez da hilko zuen Jaun Beltzaren betirako bizitzaren mitoa asetzeko. Zer deritzozue? –esan zuen Zamaltzainek bere begi gorriak soldadu ikaratuenetan iltzatuz, irribarre maliziatsuarekin.

– Hala bedi, zuk jakingo dituzu inork baino hobeto zaldiei buruzko gorabehera guztiak. Hori garbi daukagu!

– Bai halaxe da. Zoazte! Gertatu behar denak ez du zerikusirik zuekin. Zuen jauntxoaren eta nire arteko kontu garbiketa da eta ez duzue ikusiko nahi seguruenez, ezta?

– Halaxe da, bai bete betean asmatu duzu! Sentitzen dugu jauna baina zuen arteko kontua omen. Guk ez dugu hemen ezer erabakitzen dirudienez.

Eta hori esanez, Zamaltzain erraldoiaren begiradapean joan ziren bidezidorrean behera.

– Urde halakoak, koldarrak!! Horrela ordaintzen didazue...

– Isil zaitez, Jaun Beltza. Hau gure zeregina da eta hemen amaituko da dena. Zuk nire arimaren zatirik garrantzitsuena den zaldi zuria erail nahi zenuen gau honetan bere odola edan ondoren betirako bizitza eskuratzeko asmoz. Odol horrengatik are gehiago isuri duzu mesederako eta gaur gaueko asmo zital hori burutu izan balitz betirako boterea izango zenukeen eta ziur naiz ez zela izango inoren mesederako.

Hori esan ondoren zitzu egin eta etxolatik zaldi zuria atera zen Zamaltzainaren ondoan jartzeko, eta elkarri begiratu zuek bat egin zuten argi distira boteretsu baten erdian.

– Ez dut deus ikusten, ez dut deus ikusten! –oihukatu zuen Jaun Beltzak–. Zure tximista horrek itsutu egin nau, Zamaltzain madarikatu horrek, itsutu egin nauzu!!

– Itsua? lehendik ere itsua bazinen, zeure burua baizik ez baitzenuen ikusten. Zeure handinahia, zeure boterea, besterik ez. Eta betirako bizitza hainbeste desiratzen duzunez, desira hori betetzeko aukera emango dizut, orain bai. Zu izango zara, Jaun Beltza, gauero etengabe, mendeak joan mendeak etorri, bortuz bortu, Xiberoko mendizerrak zaldi beltz baten gainean zamalkatuz

zeharkatuko dituzuna, madarikazioaren menpe biziko zaren zaldun itsua, ez baituzu merezi nondik nora ibiliko zaren ikustea ere. Hala bedi!

Eta harrezkero, bortuetan, gau izartsuetan, ikusi ohi da irudi iheskor bat, zaldun antzeko bat Xiberoko bortuak ximixtaren pare korritzen, gizotso batzuk atzetik jarraiki dituelarik.

Jaun Beltza ote?



EKILORE.

Ipuin bilduma honek euskal inauteria du oinarri. Horren inguruan harilkatzen dira herri ezberdinetako istorioak, idazlearen bizipen eta sentazioetatik abiatuta. Hori dela eta, halako mundu magiko bat sortzen saiatzen da autorea, gaurko antzezpen hauek ematen dizkiguten arrastoak behatu eta bere eginez.

Ituren-Zubieta, Altsasu, Lantz, Zalduondo, Mundaka, eta Zuberoari errepaso bat emanaz, euskal inauterien ortzadar aberatsa agertzen zaigu, mitoak, beldurrak, desirak eta bizitzeko grina nahastuz. Momotxorro basapiztien odol gosea, joaldunen dantza errituala, Markitosen epaiketa, Miel Otxin eta Patxamamaren adiskidetzea, Mundakako atorrak eta feniziarak, eta Zuberoako Pitxu gizotsoaren pasadizoak, bata bestearen atzetik trumilka, zuen jakin-minean eta ametsetan aldaba jotzera datoz. Zabal iezaiezue atea euskal inauteriei, ez zarete damutuko! Hou Pitxu, hou!

Edu Zabala Garagartza DBH-ko irakaslea da Irungo Txingudi Bigarren Hezkuntzako Institutuan. Betidanik eduki du literaturarekiko grina eta euskal prentsan olerkiak, ipuinak eta iritzi-artikuluak kaleratu ditu. 1988ko abenduan Irungo *Plazara* aldizkariak antolaturiko narrazio laburren saria irabazi zuen "Metroan sutan" izeneko ipuinarekin. Baditu, bestalde, argitaratu gabeko bi itzulpen, bata Leonidas Andreiev idazle errusiarraren "Lainopean" eta bestea Julio Villar donostiarraren "Eh pottorro". Esku artean daukazu liburua hau kaleratzen duen lehena da.

ISBN 84-271-2628-X



9 788427 126282

GERO
EUSKAL LIBURUAK

12
urtetik
aurrera